

**Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea**  
**Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación**



Universidad del País Vasco    Euskal Herriko Unibertsitatea

**KAZETARITZA GRADUA**  
IKASTURTEA 2017-2018

**INDARKERIA MATXISTAREN TRATAERA**  
**PRENTSA IDATZIAN: BERRIA EGUNKARIAREN**  
**BILAKAERA**

Miren Osa Galdona  
Idurre Eskisabel Larrañaga

Data, 2018eko maiatzaren 30a

“Gradu Amaierako Lanaren egileak adierazten du lan original eta propio honetako datuak benetakoak direla, eta hala izan ezean bere gain hartzen duela jokabide ez-egokien (plagioen, irudien erabilera bidegabeen eta abarren) erantzukizuna. Irudien copyrighta haien jabeena edo lizentziadunena da. Dibulgazio helburuekin baino ez dira erabili hemen, lanaren marko teorikoa edo analisia ilustratze aldera”

"La autora o autor del trabajo fin de grado declara que son ciertos los datos que figuran en este trabajo original y propio, asumiendo en caso contrario, las responsabilidades que pudieran derivarse de las inexactitudes que consten en el mismo: plagio, usos indebidos de imágenes, etc. Todas las imágenes son copyright de sus correspondientes propietarios y/o licenciarios. Se incluyen en el presente trabajo bajo finalidad meramente divulgativa para ilustrar el marco teórico o análisis del trabajo".

## Aurkibidea

---

1.SARRERA	5
1.1 Lanaren aurkezpena	6
2.2 Ikerketaren helburuak eta hipotesiak	9
2. MARKO TEORIKOA	10
2.1 Sexu / genero sistema:	10
2.2 Botere harremanak	11
2.3 Estereotipoak	13
2.4 Rolak	14
2.5 Hizkuntza / errealitatea	15
2.6 Androzentrismoa	15
2.6 Hizkuntza sexista	16
2.7 Hedabideen ardura	16
2.8 Generoa eta hedabideak	18
2.9 Berriaren historia	19
3.METODOLOGIA	20
4.LANAREN GARAPENA	23
5. EMAITZAK	25
5.1 Emaidza orokorrak	25
5.2 Emaidzak kasuz kasu	34
5.3 Eragileen begirada	50
6. ONDORIOAK	53
7. HAUSNARKETA	55
8. BIBLIOGRAFIA	58
8.1 Legedia	59
8.2 Webguneak	60
10. ERANSKINAK	61
10. 1 Albisteak	61
10. 2 Elkarrizketak	148



## 1.SARRERA

---

“Inflexio puntutat” jo du Euskal Herriko Mugimendu Feministak 2018ko martxoaren 8a. Egun historikoa izan zela pentsatzeko hainbat arrazoi daudela nabarmendu zuten greba osteko lehen balorazioan. Greba, lan uzteak, amantalak zintzilikatu edo norberak eguna uste ahala bizitzeko deia zabaldu zen arren, ezusteko emakume kantitate handi batek kaleak betetzeko hautuaren alde egin zuten.

Lau esparrutan jarri zen fokua greba deialdirako: kontsumo greba, lan greba, hezkuntza greba eta zaintza greba. Esparru horietan emakumeek jasaten dituzten soldata desorekak, lan esplotazioa edo aukera berdinei ezin heltzea, kaleak aldarrikapenez betetzeko nahikoa arrazoi izan ziren askorentzat. Esate baterako, soldata arrakalari dagokionez, edozein adin, klase sozial edo formazioko emakumeei eragiten dien arazoa da. Soldaten batez bestekoari erreparatuta, emakume batek gizonezko batek baino %13 gutxiago irabazten du lan ordu kopuru berdinegatik; 20.052 euro, 25.993 euroren aldean.

Zaintza lanen zama emakumeen gain egotea ere kaleak betetzeko arrazoi bilakatu zen. Emakumeek gizonezkoen denbora bikoitza igarotzen dute ordaindu gabeko lanak egiten, astean 27 ordu hamalau orduren aldean, Espainiako Lan Ministerioaren arabera.

Ez ziren, ordea, emakumeak planto egiteko arrazoi bakarrak izan. Hainbat feministek egindako balantzeen arabera, indarkeria matxistaren salaketak indar berezia izan zuen aldarrikapen horietan. Besteak beste, AEBetatik iritsitako *#metoo* mugimenduaren uberan, zein 2016ko Sanferminetako talde bortxaketaren epaiketa aktualitatean puri-purian egotearen eraginez. “Matxismoak hiltzen gaitu” lelopean, feministek sutuki oihukatu zuten sistemak hiltzeraino jazartzen dituela, eta indarkeria matxistaren izebergean hilketak punta baino ez direla. Egiturazko indarkeria horren biktimengatik planto egitera atera ziren. Espainiako Gobernuak egindako zenbaketaren arabera, iaz 51 emakume hil zituzten euren bikotekide edo bikotekide ohiek Espainiko Estatuan. Indarkeria matxistaren irakurketa zabalagoa egiten duten erakundeek eta taldeek, ordea, zifra 99an kokatzen dute, legediak ez bezala, erasotzaile eta biktimaren artean lotura sentimentalik ez dagoen kasuak ere

halakotzat hartzen baitituzte. Frantziako Estatuak emandako datuen arabera, bere lurraldean 109 emakumezko hil zituen 2017an indarkeria matxistak.

### 1.1 Lanaren aurkezpena

---

Hiru emakumetatik batek genero indarkeria jasan izan du bere bizitzan zehar, izan sexu abusuak, bortxaketak edo indarkeria fisikoa nahiz psikologikoa Nazio Batuen Erakundearen arabera. Eguneroko edozein arlotan ematen da, pribatu zein publikoan, eta edozein adinetako nahiz klase mailako emakumeei eragiten die.

Espainiako Estatuan Ana Orantesen kasu ezagunaren ondorioz, azken bi hamarkadetan ohikoa bihurtu da indarkeria matxistak hildako emakumeen heriotzak hedabideetan lehentasunezko albiste izatea. Baina, horrek ez du esan nahi, egoki ematen direnik. Batetik, askotan, ikuspegi sentsazionalista eta pertsonal batetik tratatzen direlako, egiturazko indarkeria eta beraz arazo soziala dela ahaztuta. Bestetik, heriotza amaitzen ez diren bestelako indarkeriak estaltzen direlako.

Trataera egokia lantzeko bidean, Espainiako Estatuko ia erkidego guztiek euren hedabide publikoentzako protokoloak sortu dituzte genero indarkeria kasuei buruz behar bezala informatzeko. Protokolo horietan sentsazionalismoa, bortxaketa edo sexu erasoak ukatzea nahiz emakumea errudun egitea saihestu beharreko joerak diren arren, oraindik ere aholkuak betetzetik urrun daudela agerian utzi dute hainbat ikerketak. Arestian aipatutako joerak – sentsazionalismoa, bortxak edo sexu erasoak ukatzea ... – behin eta berriz errepikatzen direla baitote. 2016ko Sanferminetako talde bortxaketa azken urteko adibide argiena izan daiteke.

Euskal Herrian euskara hutsez argitaratzen den egunkari bakarra da Berria, beraz komunitate zabal batentzat erreferentea. Komunitate euskaldunari zerbitzu bat eskaintzeaz gain, sentsibiltate guztiak kontuan hartzeko

konpromisoa hartu zuen duela hamabost urte, herri honen pluraltasuna oinarrietan bere eginez.

Genero indarkeriaren ondorioz hildako emakumeen albisteak eguneroko ogia bilakatu dira gainerako hedabideentzat bezala, Berriarentzat ere. Genero ikuspegia zorrozten joan ahala, hauei ematen zaien trataera informatiboa egokiago lantzeko konpromisoa berretsi du Berriak berriaz bere estilo liburuan.

Lan honen helburua Berriak hamabost urteko ibilbidean indarkeria matxistari eman dion eta ematen dion trataera aztertzea da, bilakaerarik izan den ikustea, eta garapenik bada zein noranzkotan gertatu den ikertzea. Berriak nazio ikuspegitik jorratzen ditu gaiok. Hau da, Euskal Herrian edo euskal herritar bat tarteko diren kasuez informatzen du, lotura duena erasotzailea edo biktima den berdin baloratuz.

Espainiako Estatuko Genero Indarkeriaren Aurkako Lege Organikoak bikote harreman edo harreman afektiboen baitan gertatzen diren hilketak baino ez ditu jotzen genero indarkeriatzat. kanpoan utziz emakumeak biktimak diren gainontzeko hainbat hilketa Esaterako, 2018ko apirilaren 23an gizon batek bere bikotekide ohia eta honen ama hil zituen Gasteizen. Espainiako justziarentzat alaba baino ez da genero indarkeriaren biktima, amaginarrebarekin ez baitzuen bikote harreman egiturarik. Berriak, aldiz, indarkeria matxistatzat hartzen ditu gizonezko baten eskuetan hildako emakumezkoen kasuak, gizartean sustraituta dagoen matxismoa azaleratuz. Hau da, garrantzia bera ematen die bikotekideak edo bikotekide ohiak hildako emakumezkoen kasuei, edo bizilagunak, edo ezezagun batek hil duen emakumezkoaren auziari.

Aipatutako hamabost urteko ibilbidea aztertzeko, lau kasu hartu dira lagina osatzerako orduan. Lauak Berriako Gizartea Saileko buru den Maite Asensoren aholkuz hautatu dira, kasuistikaren ugaritasuna eta arazoaren askotarikotasuna erakuts diezaguketen ezaugarriak dituztelako. Urte ezberdinetakoak dira gertaerok, eta ez dute zerikusirik euren artean: jaso duten oihartzun mediatikoa, kasuaren berezitasuna eta, alderantziz, ohiko patroiar

erantzutea izan dira adibideok hautatzeko arrazoietako batzuk. Honakoak dira hautatutako kasuak:

1. Nagore Laffage (2008): Nagore Laffagen auzia mugarri izan da indarkeria matxistaren aurkako borrokan. 2008ko Sanferminetan Jose Diego Yllanek hil zuen Laffage, bortxatzen saiatu ostean. Oihartzun handia izan zuen gizartean hilketaren ezaugarriengatik ez ezik, Nafarroako Auzitegiak ebatzi zuen epaiak ere zeresana eman zuen: asesinatzearen ordeztu homizidioa leporatuta, hamabi urte eta erdiko kartzela zigorra ezarri zion.
2. Ada Otuya eta Jenny Rebollo (2013): Ekainaren 5ean Ada Otuya Bilboko gimnasio baten hilik aurkitu zuten. Jenny Rebollo larriki zaurituta, erietxera eraman zuten. Biharamunean hil zen. Juan Carlos Aguilar ezezaguna egingo zaio publiko orokorrari. Aldiz, Bilboko Shaolin faltsua aipatuz gero, bati baino gehiagori gogora etorriko zaizkio hedabideek auziari eman zioten jarraipena. Epaietaren egunean ehun medio baino gehiago akreditatu ziren. 2013an Ada Otuya eta Jenny Rebollo hiltzeaz akusatu zuten Aguilar. Epaiaketa bi urte beranduago egin zen, bortizki jokatu zuen ala ez mugarri elementu garrantzitsu bilakatuz epaian.
3. Melodie Masse (2107): 2017ko irailaren 15ean Malodie Masse gorpua Uztaritzeko etxe batean aurkitu zuten. Masse zortzi hilabeteko haurdun zegoen. Bere bikotekideak etxean aurkitu zuen hilotza, bilusik hanka eta eskuak ohera lotura zituela. Hiltzailea egun batzuk beranduago atzeman zuten. Melodie Masserekin inongo loturarik ez zuen gizon bat zen, etxegabea. Hego Euskal Herrian ez bezala, Ipar Euskal Herrian hedabideek ez dituzte indarkeria matxista kasuak hala identifikatzen lehen bistakoan. Drama familiar edo etxe barneko konfliktotzat jotzen dira hilketok eta ez gizartearen arrakaleetatik datorren arazotzat. Melodie Masseren kasua, gainera, ez-ohikoa izan zen. Erasotzailea etxegabe bat zen, eta ez zuen inongo harremanik emakumezkoarekin. Kasuaren berezitasunak agerian uzten du indarkeria matxistak uste baino aurpegi eta forma gehiago izan ditzakeela.



4. Ana Belen Jimenez: 2017ko urriaren 4an jakin zen Ana Belen Jimenez iazko EAEko indarkeria matxistaren zortzigarren biktima bilakatu zela. Sortzez gasteiztarra, Lantaronen bizi zen, bera hiltzeaz akusatu zuten senarrarekin, eta hiru seme-alabekin. Senarrak bi egun geroago aitortu zuen Lantarongo etxean hil zuela, eta ondoren Miranda de Ebrora eraman zuela. Kartzelan dago ordutik. Indarkeria matxista kasu gehienak, bikotekidearen baitan ematen dira. Ez litzake zentzuzkoa izango Berriaren indarkeria matxista kasuak aztertu nahi, eta horrelako gertaerarik ez hartzea ikergai bezala. Ana Belen Jimenezen kasua 2017ko EAEko zazpigarren biktima izan zelako aukeratu da. Horrez gain, emakumezkoa Arabakoa zela kontuan izanik, ikerketari lurraldetasun ikuspegi zabala eskaini nahi zitzaion.

## 2.2 Ikerketaren helburuak eta hipotesiak

---

Helburuak:

Ikerketaren helburuak honako hauek dira:

- Ikerketa honen xede nagusia lehenago aipatu bezala, Berria egunkariak indarkeria matxistari ematen dion trataera aztertzea da eta sortu zenetik pasa diren hamabost urteetan bilakaerarik izan den ikertzea.
- Jendartean indarkeria matxistarekiko izan den sentsibilitatea aldaketak Berriaren praktikan eraginik izan duen ikustea, hau da, jendartearekin bat ote doan aztertzea.
- Era berean, bere printzipioetan eta Estilo Liburuan gai honekiko aipatzen dituen konpromisoak betetzen diren behatzea.

Hipotesiak:

- Berrian hamabost urteetan bilakaera egon dela indarkeria matxistari ematen zaion trataeran, eta bilakaera horretan hedabideei buruzko teorizazio feministek eragina izan dute.
- Bilakaera horrek zerikusia du kasuei eskainitako espazioan, garrantzian eta terminologian.
- Halaber, garapena gertatu da indarkeria matxista gizarte arazo gisa tratatze aldera.

- Estilo liburuan aipatutako konpromisoak betetzen dira eskuarki, baina giza-talde bat denez, salbuespenak ere gertatzen dira.
- Bilakaera hori Berriako giza-taldean gertatutako azterketa eta eztabaida prozesuen ondorio da. Baina jendarteko giroak ere izan du eragina garapen horretan.

## 2. MARKO TEORIKOA

---

Marko teorikoa, hau da, ikerketaren oinarri kontzeptuala, eraiki dugu ikerketa eta teoria feministen ekarrietatik abiatuta. Bereziki, ikerketa eta teorizazio ildo horrek sexu / genero sistema hegemonikoak hedabideekin duen harremanari erreparatuta. Honako zutoinak jarri dizkiogu marko teorikoari:

### 2.1 Sexu / genero sistema:

---

Sexu-genero sistemaren kontzeptualizazioa da, azken urteotan, teoria feministak gizarte-zientziei eginiko ekarpen handienetarikoa. Sexua eta generoaren artean bereizketa kategorizatuz, ezbaian jartzen du sistemaren egituraketa epistemologikoa. Hau da, sistema hetero-patriarkalaren ezagutza oinarriak, edo mundua ikusteko eta sailkatzeko kategoriak zein diren; hots, gizon eta emakumetzat jotzen direnaren kontzeptualizazioa. Izan ere, *sexu* hitzak ar eta emeak bereizten dituzten ezaugarri biologiko eta fisiologikoen multzoari egiten dio erreferentzia . Generoa, aldiz, sexu bereizketa oinarri hartuta, horren gainean eraikitzen diren ideia, sinesmen, errepresentazio eta atribuzio sozialen multzotzat hartzen da. Hau da, ar eta emeen bereizketa egiteko ezartzen diren ezaugarri fisiologiko eta biologiko horietatik abiatuta gizona eta emakumea eratzeko, prozesu bat eman behar da, gizona zein emakumea sozialki eraikitze prozesu bat da, hain zuzen.

Azpimarragarria da, eraikuntza sozial horrek gizartea bi generotan sailkatzen duela (femeninoa eta maskulinoa), nahiz eta errealitatea anitzagoa izan. Hala adierazten dute, egun hainbat ahotsek pertsonen identitate generikoa aldakorra

izan daitekeela diotenean edo zuzenean, sailka ezintzat jotzen dutenean. Transgeneroen adibidea kasu. (Amelia Barquin, 2009).

Generoa eraikuntza sozial bat dela kontuan izanik, rol, jarrera, jokabide eta balore ezberdinak ezartzen dizkie emakume zein gizonezkoei, euren arteko harremana arautuz eta, zenbait kasutan, mugatuz. Denboraren eta kulturaren arabera ezarritako rol edo jokabide horiek aldakorrak izan arren, txikitatik barneratzen dira eta zuzenean baldintzatzen dute norbanakoaren portaeran eta izatean.

Hezte prozesua inposatutako parametro batzuen barruan ematen da: Esaterako, neskei kolore arrosa eta panpinak gustatu behar zaizkie. Mutilei, aldiz, kolore urdina eta baloiarekin jolastea gustuko izango du. Hori dela eta, txikitatik euren generoari dagokion estereotipo sozialarekin bat egiten dute, oharkabean bada ere.

Kulturalki gizarteak sortutako desberdintasun horrek, historikoki, gizonari emakumearen gainetik kokatzea ahalbideratu dio. Izan ere, banaketa horren ondorioz, eremu publikoa (politikaren arloa, ekonomiarena, jakintza produkzioarena.. ) gizonezkoen, maskulinitatearen, esku geratu da. Aldiz, emakumeak, feminitatea, eremu pribatura mugatu dira (etxea, zaintza, arlo afektibo / emotiboa ... ). Gure jendarteko botere banaketan, arlo publikoa askoz ere esanguratsuagoa da pribatua baino. Eta horrenbestez, emakumezkoak bazterreko lekuetan geratzen dira.

## 2.2 Botere harremanak

---

Botere harremanak azaltzeko oinarrian dagoen makineriaren berri eman behar da lehendabizi. Lan konplexua da labur eta zehatz patriarkatuaren nondik norakoak azaltzea, hortaz arduratu diren egileak definizioak haina baitira. Dolors Reguant idazle kataluniarrak horrela zioen 2007an: *“Patriarkatua gizonezkoen boterean eta lidergoan oinarrituta dagoen antolakuntza politiko, ekonomiko, erlijioso eta sozialaren emaitza da, non gizonezkoa emakumezkoari gailentzen zaion bizitzako arlo guztietan”*. (Reguant, 2007). Botere harremanak

funtsezko elementua dira makineria martxan mantentzeko eta sexu-genero sisteman ezarritako bereizketa botere harremanekin dago erlazionatua.

Pertsonen arteko harremanean, bakoitzaren ezaugarrien eta horien esanahi edo balorazioaren arabera boterea egongo da jokoan. Harreman horiei botere harremanak dira, non botere ardatz ezberdinen arabera, batzuk menperatzaileak edo erasotzaileak izango diren eta beste batzuk menperatuak edo erasotuak. Hau da, pertsona bakoitzari ezaugarri edo identitate ezberdinez osatuta izaera bat du.

Gizarte edo kulturaren arabera, ezaugarri bakoitzari esanahi edo konnotazio positibo edo negatibo bat ematen zaio, modu hierarkiko batean ordenatu daitezkeelarik ezaugarriok. Hierarkiaren arabera, pribilegio batzuez gozatuko dugu. Pribilegio horiek erabat baldintzatzen dute bi pertsonen arteko harremana. Hierarkia horren oinarrian indarkeria dago eta zapalkuntza horrek ahalbideratzen du sistemak bere horretan jarrai dezan. Hala nola, indarkeria psikologikoa, ekonomikoa, soziala nahiz sinbolikoa.

Arestian aipatu bezala, emakumeen hilketak sistema hierarkiko eta zurrun baten gainazala baino ez dira, eta horraino iritsi aurretik, indarkeria maila sotilagoan eman ohi da. "Pertsonala politikoa da" zioen Kate Millett ekintzaile feministak maitasun erromantikoa gizonezkoek emakumezkoak jazartzeko erabiltzen duten armatzat jo zuen.

Heteronorman oinarritzen den laranja erdiaren teoria botere harremanen adibide argiena izan daiteke: zu gabe ez naiz ezer, zugatik bizia emango nuke... antzerako esaldiak identitate oso baten falta indartzen dute, sortzez bakarrak eta osoak garen arren. Maitasuna eta sexu-afektiboak ulertzeko tresna ezberdinak ematen zaizkie txikitatik neskei zein mutilei: zaintzari eta etxeko lanei lotuta dauden panpinak neskei, aisialdiarekin eta espazio publikoa helmuga duen baloia mutilei. Eredu hegemoniko heterosexual bera belaunaldiz-belaunaldi igorri digute, eta behin bikote harremana izaterako orduan, rolak oso finkatuta egoten dira. Dependentsian eta posesioan oinarritzen diren eredu estereotipatuek indarkeria izan ohi dute harremanaren motor gisa.

Emakumezkoek maitasuna sufrimendu eta sakrifizio gisa ulertzea maitasun erromantikoaren lorpenetariko bat da, patriarkatuaren mesedetan. (Bideoa)

MAITASUN ERROMANTIKOAREN MITOAK
1.- Maitasuna ahalguztiduna da
2.- Maitasunak bi mutur erakartzen ditu eta, hari esker hobeto ulertzen dute elkar.
3.- jeloskortasuna maitasunaren adierazle bikaina da
4.- Maitasunak norberaren nortasuna albo batera uztea eskatzen du
5.- Bizitzan, "egiazko" maitasun bakarra dago

Iturria: Argia

### 2.3 Estereotipoak

---

Estereotipoak gizartean hedatu diren iritzi eta sinesmen faltsuen eraikuntza sozialak dira. Hau da, ez dute funtsezko izaterik edo oinarririk. Mitifikazio batzuen eratorriak dira eta belaunaldiz- belaunaldi transmititu dira, eta ondo errotutako sustraien moduan, estereotipoak deuseztatzea edo aldatzea oso zaila da. Izan ere, sexu, rol, portaera, ezaugarri eta jokabide batzuk determinatzen dizkiete gizon eta emakumeei. Gizarteko parametroetara egokitzeko bidetzat hartzen dituzte hedabideak; beraien moldetatik at egon litekeen edozein adibide bigarren maila batean utziz.

Horrela, hedabideek estereotipoen erabilera masiboa egin ohi dute. Batez ere, emakumeen kasuan. Hau da, nahiz eta gizartean emakume izateko modu, izaera, pentsaera eta eredu desberdinak non nahi egon, komunikabideetan azalarazten dena aniztasun handi horren zati bat baino ez da. Ez hori bakarrik, normalean, emakumea eremu pribatura mugatzen da. Eta eremu publikoarekin lotzen zaionean, lorpenei ez zaie merezitako protagonismoa ematen. Adibidez, mundu osoak jaki zein den Urrezko Baloiairen irabazlea futbol maskulinoaz ari

bagara. Futbol femeninoko izar zein zen, ordea, oso gutxiak jakingo dute. Hedabideek irabazle bakoitzari ematen dioten oihartzuna dela medio.

## 2.4 Rolak

Estereotipoak eraikuntza kulturalak diren aldetik, rolak ere harreman soziokulturalaren arteko emaitzak dira. Hauek ere, denboraren poderioz aldatzen joan dira, batzuek oinarri sendoa izan arren, eta kultura bakoitzak bere rolak izan ditzake.

Historiak sortutako banaketa horretan, non gizon eta emakumeek tradizionalki rol desberdinak jokatu dituzten gizarlean, komunikabideek legitimatu egin dituzte bai bataren zein bestearen jokabideak. Hedatzen dituzten irudiek portaera eta ikuskera batzuk sortzen dituzte, nahiz eta hauek, zenbait kasutan, hedatzen dituzten irudiek portaera eta ikuskera batzuk sortzen dituzte, murriztaileak, bestelako praktika eta jokabide ugari fokutik kanpora uzten baitituzte, ikusezintasunera (hots, ez izatera) zigortuz edo normalitatetik kanpokotzat kategorizatuz.

SISTEMAK SEXU BAKOITZARI EZARRI DIZKION FUNTZIOAK	
NESKAK	MUTILAK
Printzesa	Bizkorra
Zaintzailea	Independentea
Goxoa	Ausarta
Geldoa	Mamitua
Objektua	Subjektua

Iturria: Bilgune Feminista

## 2.5 Hizkuntza / errealitatea

---

Hizkuntza pertsonen arteko komunikazio tresna baliotsuena da. Ez hori bakarrik, hizkuntzaren bidez jakintza, aurreiritzi, estereotipo, balore, jarrera eta ideologia batzuk barneratzen ditugu (Teresa Meana, 2004). Horien bidez, norbanakoak bere “ni”-a eraikitzen du, esperientzietan oinarrituta. Tokian tokiko errealitate soziokulturala irudikatzen du (Gipuzkoako Foru Aldundia, ....) Gainera, jasotako faktore guzti horiek belaunaldiz- belaunaldi transmititzen dira hizkuntzaren bidez, estereotipo, ohiturak eta balioak gizartean sendotuz. Nolabait, gizartearen egitura hierarkiko eta ez-orekatua bere horretan iraun dezan eragiten du hizkuntzak, halaber, egoera aldatzeko ere baliagarria izan daiteke.

Beraz, hizkuntza errealitatea eraldatzeko tresna ere izan daiteke. Hala ere, hizkuntzalari tradizionalak hizkuntzaren barruan bi bereizketa egiten dituzte: alde batetik, genero gramatikala eta bestetik, genero kulturala (Amaia Alvarez Uria, 2004). Lehena gramatika hutsa izango litzake, hizkuntzaren osaera sintaktikoa. Bigarrena, aldiz, erabilerarekin dago lotuta eta gizarteak zuzenean eragiten du bere edukian. Euskararen kasuan, genero gramatikalik zehazten ez duen arren, ezin pentsa daiteke hizkuntza sexista ez denik; forma hutsean salbu badago ere, eguneroko jardunean gizartearen isla bilakatzen baita hizkuntza, eta hau joera zapaltzailez josita dago. Uriaren arabera, “harreman dialektikoa dagoen neurrian, bi alderdiak dira erantzule, bata bestearengan eragina baitu”. Hortaz, hizkuntza ezta baliabide molda ezin bat, iragankor eta eraldatzailea baizik.

## 2.6 Androzentrismoa

---

Hizkuntza harreman dialektiko baten emaitza da. Pertsonak egoeraren arabera moldatzen duten bitartekaria da, beraz, alde nabariak egon daitezke, hala nola, kultura batetik bestera. Hau da, hizkuntza bat ezin da neutroa izan. Norberaren iritzi, balio eta ezagutzek hartzailearengan eragiten duten bezala, hizkuntza erabiltzeko moduak ere badu zeresana. Bakoitzak errealitatearen interpretazio propio bat egiten baitu, bere ikuskerara hurbilduz beharrezkoak diren baliabideak. (Alvarez Uria, 2004) (Emakunde... )

Errealitatea erreproduzitzeko orduan, hedabideek ere beraien aburuzko interpretazioa ematen dute. Joera orokor moduan, gizonezkoen ikuskera batetik kontatu ohi dituzte gertakariak, gizonen irudia erdigunean jarriz eta protagonismo berezia emanez. Androzentrismoa deritzogu horri. Izan ere, modu honetan, emakumea menpekotasun egoera batean kokatzen da eta gizonezkoen garrantzia handiagoa ematen zaie. Deigarria da, esaterako, “gizon” hitzaren erabilera “gizaki” hitzari erreferentzia egiten zaionean. Beste adibide argi bat, zenbait hizkuntzetan gehien bat, genero maskulinoaren erabilera esanahi unibertsal eta orokorraren esanahizat hartzen dela da. Baita, pluralean hitz egiterakoan, genero maskulinoa baino ez erabiltzea neska zein mutil egon daitezkeen jende multzo bati zuzentzerako orduan. (Meana, 2004) (Emakunde, Emakumearen Euskal Erakundea ... ) (Gipuzkoako Foru Aldundia, ... )

## 2.6 Hizkuntza sexista

---

Hizkuntza sexista ez erabiltzea ez da gomendio hutsa, Espainiar Estatuko Berdintasunerako Lege Organikoan, bai EAEko Berdintasun Legean jasotzen da instituzio publikoen betebeharra dela hizkuntza ez-sexista erabiltzea. Uste okerra da prentsatzea euskara, generorik ez duenez, ez dela sexista.

BERRIAk ere erabat arbuiatzen du hizkuntza sexistaren erabilera. Estilo Liburuan irakur daiteke zein forma hobesten duten zeren ginetik. Esaterako, bi sexuetakoa pertsonak izendatzeko *jende*, edo *gizaki* bezalako hitzak erabiliko dira, eta ez *gizon*. Estereotipo sexistek ere ez dute lekurik euskal egunkarian. Deskribapenetan ez da *beltzarana*, *liraina* edo adjektibo peioratiborik jarriko. Albistearen protagonistak ere izen-abizenez aurkeztuko dira, ez X-ren emazte edo gizon gisa.

## 2.7 Hedabideen ardura

---

Emagin Prestakuntza Feministarako elkarteak duela bost urte indarkeria matxistaren inguruko azalpen gida osatu zuen Tolosan eginiko jardunaldi batzuen ostean. Hainbat modutan deitu bazaio ere indarkeria mota horri – emakumeen aurkako indarkeria, genero-indarkeria, etxeko indarkeria, indarkeria matxista, indarkeria sexista, besteak beste – funtsean emakumeen



eta gizonen arteko ezberdintasun sozialez ari garela nabarmendu behar da; botere desoreka identifikatzen duen hitza litzake egokiena.

- Etxeko indarkeria: emakumeen aurkako indarkeria ez da soilik etxean ematen, kalean, portalean, lanean, hondartzan nahiz mendian ematen da. Indarkeria non gertatzen den azpimarratzen du, eta ez indarkeriaren kausa edo jatorria.
- Genero indarkeria: Hitz elkarketak nahasmena sor dezake, ez baitu argi uzten zein generok zeini egindako indarkeria den. Kasu honetan ere ez da argi ikusten indarkeriaren jatorria eta oro har, mugimendu feministek eta arlo teknikoan lan egiten duten profesionalak beste termino batzuk lehenesten dituzte. Ez da azpimarratzen indarkeriaren muina: emakume eta gizonen arteko ezberdintasun sozialak eta horiek dakartzaten bereizkeriak.
- Emakumeen kontrako indarkeria: kontzeptu honek “emakume” hitzaren bidez, ikusarazi egiten du emakumeek pairatzen duten indarkeria dela. Euskaraz pluralean ibiltzen da, kolektibo izaera emanez, eta aintzat hartuz ezaugarri komunak eduki arren, emakumeak aniztasunak direla.
- Indarkeria sexista: argi geratzen da indarkeriaren jatorria zein den: gizarte-sexista; sexismoa bera, alegia. Gizartea sexuen arabera banatzearen ondorioa da indarkeria hau. Gizarteak markatzen du nolakoak izan behar diren emakumeak eta nolakoak gizonak. LGTBI kolektiboak ez luke lekurik izango sistema binario honetan, ez baititu arauak betetzen.
- Indarkeria matxista: matxismoak maskulinitatearen botere-jazarpena adierazten du. Hori ardatz hartuta, jazarpenaren egileari ematen dio garrantzia kontzeptu honek. Era berean, gizartea sexuen arabera banatua dagoela barne hartzen du termino honek, eta “sexu-genero” sistema ere ikusarazten du. Horren gain, beste kolektibo batzuen aurkako indarkeriak ere jasotzen ditu, emakumeen kontra egiten den indarkeriaz gain. Honen baitan, bi maila bereizi behar dira: indarkeria matxista sinbolikoa eta egiturazko indarkeria matxista. Lehena sexu-genero sistema betiketzen duen indarkeria da. Belaunaldiz belaunaldi

sexuen arteko botere-harremanen eta bereizkerien iruditegia normaltzat hartzea du xedetzat. Horren helburua da menperatzailea eta menpekoa, bakoitza, bere lekuan betikotzea. Bigarrenak gure gizartearen erroan dauden sistemek egiten dute posible indarkeria matxista. Egitura ekonomikoa sexuen arabera lan-banaketan dago oinarrituta. Egitura politikoa ere matxista da, espazio publikoaren kudeaketa gizonen esku uzten baitu.

Azken kontzeptua hobesten du Berriak gaur-gaurkoz. Zehazki, honako hau dio indarkeria matxistaz: “Giza eskubideen urratzea da, pertsonen askatasunaren eta duintasunaren kontrakoa, eta hala tratatuko da Berrian. Gizarte egiturak sorturiko arazoa izanik, ezin aurkeztuko da maitasun gehiegiaren edo erotasunaren ondorio gisa. Horrelako gertaerak deskribatzeko orduan, pertsonen duintasuna errespetatuko da, eta sentsazionalismoa baztertuko. Biktimen intimitate eskubidea zorrotz errespetatuko da, eta beti aintzat hartuko da beren izen-abizenak jakinaraztea nahi duten edo ez”.

## 2.8 Generoa eta hedabideak

---

Komunikabideek herritarren ideia, iritzi, sinesmen, ohitura eta jokabideak aldatu nahiz sendotzeko gaitasuna dute. Errealitatearen ekoizle diren aldetik, garrantzia handia hartzen dute subjektu bakoitzak jokatzeko dituzten jarrerari erreparatzen badiegu. Arlo horretan, neska eta mutilek umetatik jasotako balore edo heziketak garrantzi handi hartzen dute. Hala nola, gizarteko ohiturak eta portaera tradizionalak erreproduzitzeko. Halaber, nahiz eta hedabideek hedatzen dituzten irudiak errealitatearen errepresentazio izan, nekez azaltzen dute gizartearen aniztasuna. Ez hori bakarrik, indarkeria matxisten kasuetan, maiz, indarkeria jasan duten emakumeak bi aldiz egiten dituzte biktima; testigantza zalantzan jartzean eta erasoaren zama guztia bere gain jartzean: erasoaren unean zeraman arropa ezbaian jarriz, ezetza ondo adierazi ote zuen galdeginez, hartutako zenbait portaera zalantzarriak izan daitezkeela esanez...

- Gizartea patriarkatuaren sustraietatik eraikia dago. Gerda Lerner idazle estatubatuarrek “La creación del Patriarcado” (patriarkatuaren

eraikuntza) liburuan aipatzen duen bezala, patriarkatua milaka urtetan emandako prozesu baten emaitza da. Historiak pisu garrantzitsua du emakumeak gizartean sailkatzeko orduan. Emakumeak historia bat izan du; baina belaunaldiz belaunaldi gizonek sortu eta birsortutako historia izan da (Blanca Muñoz, 2004). Muñozen arabera, emakumeen historia aurreiritziz beteriko historia izan da. Gizonen ikuspuntutik irudikatutako emakumeen irudikapena transmititu da, belaunaldiz- belaunaldi. Gaitasunak eta eskubideak mugatu zaizkie, irudi mitifikatu eta merkantzia sexual baten ordainetan (Muñoz, 2004). Hori dela eta, emakumeen historia, gaurdaino, bere askatasuna eta emantzipazioa lortzeko etengabeko borrokan bilakatu da. (Lerner, 1986; 59.or)

## 2.9 Berriaren historia

---

150.00 irakurle, 13.580 BerriaLagunek, 250 langilek eta 23.000 akziodunek osatzen duten komunitatea da Berria Taldea. Euskaldunon Egunkaria bortxaz itxi zutenean, herri ekimenez sortu zen euskarazko egunkari berria. Duela hamabost urte komunitate sendo batek sortu zuen eta gaur egun oinarri berarekin jarraitzen du zutik.

Gaur egun, Berria Taldea EKT Euskarazko Komunikazio Taldearen marka eta irudia da, webgunean zehazten duenez eta hala dio taldearen funtzioez: “Berria taldearen egitekoa euskarazko eremua indartu eta sendotzea izan da. euskarazko hedabideak sortzearekin zein garatzearekin batera; euskarazko hedabideen behar bezalako garapenerako kultur eta industria egitura antolatzea”.

Gizarteari zerbitzu bat eskaintzeko asmoz dihardu Berriak. Horretarako, gizarteko sentsibiltate eta izaera oro hartzen ditu aintzat, pluraltasuna bermatzeko konpromisoz. Euskaraz argitaratzen den egunkari bakarra da, eta jakitun dira bertako langileak euskal hiztun komunitatean eragin zuzena dutela Berrian ateratako albisteez, baita hauei ematen zaien trataerak ere. Azken urteetan euskal iruditegi kolektibo komun bat irudikatzen duen orduan, lan mardula egin baitu Berriak.

### 3.METODOLOGIA

---

Lan honen helburua Berriak hamabost urtetan indarkeria matxista kasuetan izan duen bilakaera aztertzea da. Horretarako, gizarte zientziek bere dituzten baliabide metodologikoak erabili dira. Batetik, hedabide baten jardunaz ari garenez, edukien azterketa baliatu da, kuantitatiboa zein kualitatiboa. Bestetik, eta edozein jardun sozialetan eragile edo agenteek duten garrantzia aintzat harturik, Berriak gai honi ematen dion trataeran zerikusi zuzena duten zenbait lagunekin sakoneko elkarrizketak egin dira eduki azterketa hutsari ikuspegi osoago bat emateko eta aspektu kualitatiboan sakontzeko.

Edukien azterketari dagokiola, hamabost urteotako garai ezberdinetan gertatu diren indarkeria matxista kasuak hartu dira lagintzat. Nagore Laffageren auzia (2008), Ada Otuya eta Jenny Reboloren kasua (2013), Melodie Masseren hilketa (2017), eta Ana Belen Jimenezen auzia (2017). Azken biak urte berekoak diren arren, komunean duten faktorea hildako emakumea baino ez da. Aitzitik, lurraldetasuna ere kontuan hartu nahi izan da; Araban, Bizkaian, Lapurdin eta Nafarroan izandako hilketak baitira. Hots, indarkeria matxista kasuek ez dute lekukotasun bat, han- hemenka pairatu daitezke. Kualitatiboki nahiz kuantitatiboki aztertu dira kasuok, ahalik eta modu zorrotzenez.

Lau kasuok hautatu izanaren arrazoiak ugariak dira. Lauek indarkeria matxistaren baitan biltzen diren kasuistika anitzen profila presentatzen baitute. Hau da, bikote harremanetik harago, indarkeria matxista kasuak egiturazko arazoak direla ikusarazten dute, eta biktimaren nahiz erasotzailearen profilak hainbat aurpegi izan ditzakeela. Oihartzun mediatikoa (Nagore Laffage), zapalkuntza bikoitza jasatearen ondorioak –jatorria eta prostituzioan jarduteagatik– ( Ada Otuya eta Jenny Rebollo) eta maskulinitateak bere gain duen indarkeriaren monopolioa ikusarazi daitezke (Melodie Masse).

Lau kasutan Berriak paperean argitaratu dituen albisteak hartu dira ardatz. Hau da, hilketa jazo zenetik, epaiketa egin arteko informazioa. Bi kasutan oraindik ez da epaiketarik izan, berriki gertatutako hilketak baitira, eta kasu horietan ikertutako lagin kopurua murriztagoa izan da. Nagore Laffageren

kasuan, 2008tik hasi eta 2016 arteko edukia ikertu da. 2013-2015 aldia Ada Otuya eta Jenny Reboloren hilketetan. Melodie Masseren kasuan, aldiz, 2017ko irailaren 15etik 23ra jasotako informazioa jorratu da. Azkenik, Ana Belen Jimenezen kasuan, hiru eguneko jarraipena ikertu da.

Orotara, 47 item ikertu dira: Nagore Laffage 25 item, Ada Otuya eta Jenny Rebollo 13 item, Melodie Masse 5 item, eta Ana Belen Jimenez 4 item. Laginaren baitan kazetaritza genero ezberdinak daude. Gehienak albiste informatiboak diren arren, analisiak eta elkarrizketak ere badaude.

Prozedurari begiratuta, aurretik aipatu bezala, ikerketaren emaitzak ahalik eta modu zehatzenean ematea da asmoa. Gauzak horrela, kuantitatiboki nahiz kualitatiboki interpretatu dira emaitzak. Arantza Santestebanek Goiena hedabidearentzat eginiko estilo liburuak (2015) izan da oinarri nagusia azterketaren irizpideak ezartzeko orduan. Halaber, Berriako Estilo Liburuak eta Kataluniako kazetarien estilo liburuak (2010) ere oso lagungarriak izan dira.

Eraginkortasuna ahalik eta handiena izan dadin, eta ikerketak hasieran ezarritako helburuak bete ditzan, bai/ez erantzunen bidez diseinatutako taula bat egin dugu.

<b>FITXA TEKNIKOA</b>			
Argitaratze data			
Titularra			
Egilea			
Orria			
Portadan erreferentzia		Bai	Ez

<b>ARGAZKIA</b>			
Biktimaren argazkia		Bai	Ez
Erasotzailearen argazkia		Bai	Ez
Argazki informatiboa		Bai	Ez
Argazki oina			
<b>TRATAERA</b>		<b>EZAUGAR RIAK</b>	
Indarkeria matxista edo genero indarkeria hitza hasieran		Bai	Ez
Egiturazko indarkeria gisa azaldu		Bai	Ez
Gertakarien deskribapen egokia		Bai	Ez
Emakumzkoaren/erasotzailearen profil tipifikatua		Bai	Ez
Emakumezkoaren datu pertsonalak errespetatu		Bai	Ez
Erasotzailearen datu pertsonalak errespetatu		Bai	Ez
Emakumezkoa errudun egin dezakeen adierazpenak/iritziak		Bai	Ez
Aurretiazko testuingurua azaldu (salaketa, aurrekariak)		Bai	Ez
Sentsazionalismoa		Bai	Ez
Estereotipo/ rolak		Bai	Ez
Hizkuntza sexista / desegokia		Bai	Ez

Jarraipen egokia / mobilizazioen berri eman		Bai	Ez
Sakoneko gehigarria		Bai	Ez

Atal honen abiaburuan esan dugun bezala, edukien azterketaz aparte, Berriaren jarduna lehen pertsonan ezagutzen duten hiru arduradunekin elkarrizketa sakonak egin ditugu. Irene Arrarats Lizeaga Berriako euskara arduraduna eta estilo liburuaren zuzendaria, Martxelo Otamendi Egiuren Berriako zuzendaria eta Maite Asensio Lozano Gizartea saileko arduraduna izan dira elkarrizketatuak. Solasaldi bakoitzak, batz bestea, 45 minutuko iraupena izan dute. 15 urteotan izandako bilakaeraz, gogoeta premiaz, terminologian izandako aldaketak, eta ,oro har, hautatutako lau kasuen bereizgarritasunez jardun gara eurekin.

#### 4.LANAREN GARAPENA

Interes pertsonaletik abiatuta hautatu nuen gai hau, eta Berrian kokatzearen arrazoia izan da euskarazko egunkari bakarra dela eta hurbilen sentitzen dudana dela. Feminismoak interes handia sortzen didanez eta Idurre Eskisabel tutoreari ere bai, indarkeria matxista kasuen bilakaera aztertzea erabaki genuen. Hamabosgarren urteurrenaren aitzakia ere erabakigarria izan zen garapena ikusteko.

Gauzak horrela, ikerketa epetan banatu genuen. Lehenik eta behin, funtsezkoa zen testuinguru egoki bat finkatzea eta mamitzea. Aditu eta autore ezberdinek argitaratutako ikerlanak, saiakerak eta txostenak irakurri dira. Feminismoa eta komunikabideen jarduna uztargarriak izan daitezkeela dioten lanak eta erreferente feministen obrak hartu dira aurre lanketa prestatzeko. Denbora honetan, bildutako informazio kopuru handia izan da ziurrenik arazo esanguratsuena.

Prozesu hori baliagarria izan da ikergaiak aukeratzeko orduan. Indarkeria matxistak hainbat izaera eta forma izan ditzakeela ohartzeko ez ezik, ikertzerako orduan kontuan hartu beharreko irizpideak zehaztu dituelako. Maite Asensio Lozanoren aholkuak ere funtsezkoak izan dira ikertutako kasuak

aukeratzeko orduan. Guzti honek metodologiaren nondik norakoak zehazten lagundu digu. Baita hipotesiak eta helburuak zein izango diren argitzen ere.

Behin marko teorikoa eraikita, ikerketari ekin genion. Arestian aipatu bezala, ikerketa kualitatiboa zein kuantitatiboa gauzatzea izan da helburuetako bat. Lehen aipatutako taularen osaketak aise erraztu du lan hori, nahiz eta ikerketa egiterako orduan hainbat zalantza agertu interpretazioaren aldetik. Prozesu guztian zehar eginiko tutoretza eta telefono deiek, duda guztiak argitu dituzte, eta lanaren garapenaren berri izateko bide egokiak izan dira.

Lana borobiltzeko asmoz, Berriaren bilakaera euren azalean bizi duten profesionalen testigantzak bildu ditugu. Irene Arrarats Lizeagak hizkuntzaren arlotik hitz egin digu indarkeria matxistaz; erredakzio barneko aurrera pausoez, eta estilo liburuan egin diren moldaketez. Martxelo Otamendi Egigurenek, zuzendari gisa, kazetaritzaren ikuspegitik osatu du ikerketak. “Egun feminismoan erreferenteak diren emakumeek gidatu dute Berrian prozesu hau”, adierazi du, besteak beste. Azkenik, eta balioa kendu gabe, Maite Asensio Lozanok indarkeria matxista kasuak idazteak suposatzen duen ardura nabarmendu du, trataera egokia ematea kazetarien esku dagoela gogoratu.

Orokorrean, lanaren garapenak ez ditu zailtasun asko izan, besteak beste, bai tutorearen aldetik, baita Berriaren aldetik ere, laguntza eta babesa erabatekoak izan direlako. Bigarrenaren kasuan, elkarrizketak egiteko hitzorduak adosterako orduan erraztasunak jarri dizkirate, eta behin beraiekin elkartzean, aurrera begirako zalantzak argitzeko kontaktu pertsonalak eman dizkirate.

Ikerketaren zailtasun nabarmenena kontzeptuen interpretazioari dagokioenez gertatu da. Hasiera batean, asmoa, genero indarkeria kasuek Berrian izandako bilakaera aztertu nahi genuen. Kontzeptuak berak joko zelaia asko murrizten du, instituzioek emandako definizioaren arabera bikote harremanen baitan gertautako indarkeria kasuak baitira. Berriak joko zelaiaren mugak zabaldu egiten ditu, baita kontzeptuan beran ere: indarkeria matxista hobesten dute gaur-gaurkoz. Irene Arraratsek azaldu du nola genero indarkeria soilik Espainiako legedia aipatzerako orduan baino ez den erabiltzen. Indarkeria matxista hitzak askoz joera gehiago hartzen baititu bere gain, eta arazoaren iturburua izenean argi uzten du. Gainera, mugimendu feministak ere begi



hobeagoz jotzen duten deitura izanik, egun Berrian gehien erabiltzen den kontzeptua da.

Hori dela eta, datuak bilatzerako orduan bi kontzeptu horien arteko nahasketak bilaketa zaildu du. Datu ofizialek bikotekidearen baitako biktimak baino ez baititu jorratzen, eta jada aipatu bezala, Berria harago doa. Dena dela, prozesuan zehar iturri ezberdinak kontrastatuz, eta hiru elkarrizketatuekin izandako solasaldiei esker, ikerketaren izena bera eta bi kontzeptuok deskribatzeko moduak argitu dira.

Bestalde, ez da aparteko arazorik egon. Laginak Koldo Mitxelena arxibategi digitalean aurkitu dira, 2003tik hasi eta 2017 arteko hemeroteca baitute bertan bildutan. Behin ikergaian eskuetan izanda, banan-bana bakoitzaren ezaugarriak aztertu dira. Emaizak eta ondorioak idazterako orduan bien arteko interpretaziok nahastu ditut lehen unean, baina tutorearen laguntzarekin, bakoitzari dagokion lekua eman eta ikerketa behar bezala amaitu ahal izan dut.

## 5. EMAITZAK

---

Ikerketa egiten hasi aurretik uste bezala, azterketak hainbat ondorio eta hausnarketa positibo plazaratu ditu, Berriak indarkeria matxistarekiko duen konpromisoa benetakoa dela eta gaiok ahalik eta trataera zintzoena izaten dutela kasu. Ikertu diren 47 albisteak horren adibide dira, nahiz eta gabeziak ere antzeman diren ibilbide osoan zehar.

### 5.1 Emaizak orokorrak

---

Emaizak orokorrean: lau ikergaiok elkartuz gero, Berriak indarkeria matxista kasuetan egin duen bilakaeraren balantzea positiboa da. Emaizak taulan jarritako irizpideen arabera azalduko dira, ordena logiko bat izan dezan. Bertan azaldutako adibideak, aldiz, ordena kronologiko bat izango dute, hamabost urteotako bilakaera nabarmenduz. Bestalde, lehen zatian ikerketa osoak utzitako datu kuantitatiboak azalduko dira gehien bat, azalpen kualitatibo batzuk

direla medio, baina orokorrean zenbakietan jarriko da fokua. Kasuen araberako emaitzak eta balorazio kualitatibo sakonagoa jarraian azalduko da.

- Titular informatiboa: kasuen %94etan albisteetan idatzitako titularra egokia izan da. Argia, zuzena, eta ulertteraza izateaz gain, indarkeria matxista kasua dela argi uzten dute. Nagoreren kasuan, “justizia eske, bi urte geroago”, aldiz, ez litzateke egokiena izango, batez ere, gaia kokatzen ez duelako eta irakurri berri batentzat, zaila izan daitekeelako kasua lehen bistakoan identifikatzea (2010/07/04). Baita, Ada Otuya eta Jenny Reboloren hilketen berri ematerakoan ere: “ Jipoitutako andrea ere hil egin da, eta atxilotutako gizona espetxeratu egin dute” (2013/06/13). Melodie Massen auzian ere antzematen da, “haurdun zegoen emakume bat hil dute Uztaritzen, bortizki jipoituta”. Azkenik, Ana Belen Jimenezen hilketaren berri emateko albistea: "Bikotekide ohia hil duelakoan, gizonezko bat atxilotu dute Gasteizen" (2017/10/04). Erabat informatiboak ez diren titularrak 47 itemetatik hiru albistetan antzeman dira.
- Egilea izendatu: indarkeria matxista kasuak jorratzerako orduan, kazetariak gaiarekiko duen interesa eta sentsibilitatea funtsezkoak dira. Ezagutza feminista izateak lana erraztu dezakeen moduan, kontrakoak emaitza kaxkarragoak eman ditzake. Hamar albistetik seitan kazetariak bere izen abizenek sinatu du: Naiara Elola, Maite Asensio edo Arantxa Iraola kasu. Elolaren kasuan, Nagore Laffageren epaiketaren jarraipena egin zuen, ia-ia gaiari aditua bilakatuz. Aberastasuna eta sakontasuna lortu zuten bere lanek. Hamar albistetik lautan, ordea, erredakzioak sinatutako berriak dira, edo kasurik makurrenean, lanari ez zaio inongo egilerik aitortzen. Modu honetan, auziek jarraipena galtzen dute; ez baitaie lehen mailako garrantzia ematen. 2015ko apirilaren 22an Ada Otuya eta Jenny Reboloren auziko epaiketaren saioetako bat egin zen – albisteak ez du zehazten zein saio zen –. Albistea erredakzioaren izenean dago sinatuta (2015/04/22). Bi

emakumezkoen hilketen inguruko epaia jorrazeko, egokiena, kazetari bat horretara bideratzea litzake. Epaiketa hasi eta amaitu bitartean kontaketa bere esku egon dadin. Beste kasu batzuetan, albiste laburrak izan ohi dira, baita auziak gaitzesteko elkarretaratzeak ere: Melodie Massen kasua gaitzesteko elkarretaratzea egin zen Uztaritzen astebete beranduago (2017/09/23). Zazpi egunetan gaiak izan zezakeen gaurkotasuna ezbaian jarriz, eta egunkariaren diseinuaren eztabaidan sartu gabe – horrelako albisteak ez baitira kazetariaren izenez sinatzen – ez dirudi lekurik aproposena zenik gaia jorrazeko.

- Kokaleku egokia: estilo liburuek gaiok gertakari soil gisa ez izendatzeko aholkatzen dute, eta egunkarian behar zaien lekua aitortzea. Arlo honetan, Berriak erabat betetzen ditu iradokitako irizpideak. Hamar albistetik bederatzi Gizartea sailean daude argitaratuta. Nagore Laffagen omenez Iruñean eginiko elkarretaratze bat da, soilik, Sanferminetako gehigarrian datorrena.
- Azalean erreferentzia: Martxelo Otamendik elkarrizketan aipatu du emakumezko baten hilketaren berri jakitean egon zela egun bat non azalean joan behar zuela erabaki zutena; gertakari soilak izateari utzi, eta arazo politikotzat jo behar zirela. Gauzak horrela, ikertu diren lagin guztien %38tan eman da gertakariaren berri portadan. Normalean, hilketaren lehen albistea dela-eta jartzen dira lehen lerroan. Horrela eman zuten Laffagen hilketaren berri azalean: "Gizonezko bat atxilotu dute Erroibarren agertu den emakumearen hilketagatik" (2008/07/09) Bestalde, epaien ebazpenak ere azalean jartzen dit Berriak. "Errudun jo dute Aguilar, baina ukatu dute hilketa tema ankerrez egin zuela" (2015/04/25). Azalean erreferentziarik izan ez duten gainontzeko itemek ezaugarri komunak dituzte: elkarretaratzeaz, instituzioen adierazpenaz edo epaiketa hasiko den dataz jakinarazten duten albisteak dira. Adibidez, Medolie Massen hilketan: "Deia egin dute Uztaritzeko hilketagatik kalera irteteko" (2017/09/16)

- Biktimaren argazkia: Ikertutako albiste gehienak argazkiz osatuta daude. Batean ere ez da ageri hildako emakumezkoaren irudirik. Ez behintzat modu inplizituan. Elkarretaratzeetan parte-hartzaileek eraman ditzaketen biktimen argazkiak aintzat hartu gabe.
- Erasotzailearen argazkia: Informazio ofizialik ezean, eta erasotzailearen aurkako akusaziorik ezean, Berriak ez ditu erasotzaileen argazkiak jartzen albisteak osatzeko. Ikertu diren albisteen %21etan baino ez da gizonezkoaren identitatea azaleratu irudi bidez. Kasu horietan, jada euren aurkako akusazioa zegoelako, eta, joera ikusirik, epaiketaren bezperetan eta honek iraun bitartean argitaratu dituzte. Erasotzailea akusatua denean jarri izan du Berriak bere argazkiren bat, erabaki ofizialaren aurretik, sekula ez. Gainera, normalean erasotzailearen argazkia ez jartzeko joera dagoela dio Maite Asensiok. Diego Yllanes eta Juan Carlos Aguilar dira bi argazkietan ageri diren bi gizonak.
- Argazki informatiboa: Ez biktimaren argazkia, ezta erasotzailearena ageri ez diren kasuetan, indarkeria matxista kasuak irudikatzeko hartu ohi den joera argazki informatibo bat jartzea izaten da, esaterako, elkarretaratzeak. Dena dela, edukiari balioa gehitzen dioten beste argazki batzuk ere erabili dira hamabost urteotan. Ikertutako albisteen %68ak albisteari informazioa eta testuingurua gehitzen zizkien argazkiz zeuden lagunduta.
- Indarkeria matxista edo genero indarkeria hitzak hasieran: Egun indarkeria matxista gisa sailkatzen diren albisteak genero indarkeria edo emakumeen aurkako indarkeria gisa izendatzen ziren duela urte batzuk. Azken hau, Maite Asensiok dioenez, gaur egun ere erabiltzen da, indarkeria matxistaren sinonimotzat. Ez, ordea, genero indarkeria. Ez bada, behintzat, Espainiako Estatuko legeari erreferentzia egiteko. Hala esan du Irene Arraratsek. Gainera, bere garaian "genero" hitzak euskalzaileen artean

eragindako eztabaida ekarri du gogora, "generoa gramatikala" baino ez dela aldarrikatzen zutenen iritzi artikuluez oroitu da, esaterako. Webgunean aise identifika daitezke albistek goiburuari erreparatua, eta kasuotan indarkeria matxista horiz azpimarratuta ageri den izenburua argia da. Paperean, ordea, ez da hain erraza gaiok identifikatzea. Egunkariaren diseinuagatik, edo aztertu ez diren arrazoiak direla medio, hilketek ez dute goibururik. Hori dela eta, edukiaren lehen zatian jarri da ikerketaren fokua. Hau da, indarkeria matxista, genero indarkeria edo emakumeen aurkako indarkeria bezalako deiturarik ageri den albistearen lehen lerroetan; 47 albistetatik 11 kasutan baino ez da antzeman. Besteak beste, mugimendu feministak elkarretaratzteen berri ematerako orduan hilketak gisa horretako indarkerien ondorioak direla nabarmentzen dutelako. Ada Otuyaren eta Jenny Reboloren hilketen inguruan hainbat hedabidek hartutako ildo sentsazionalista eta "etika gabea" salatzen antolatutako protestaren berri ematerako orduan (2013/05/13). Horrela dio azpigituluak: "Manifestazioa egingo dute bihar feministek, indarkeria matxistaren dimentsio politikoa gogora ekartzeko".

- Egiturazko indarkeria gisa azaldu: Arestian aipatu da albisteen lehen zatian ez dela indarkeria matxista edo antzeko terminorik erabiltzen gaia izendatzeko. Halaber, emakumezkoren baten hilketa kasuek hainbat estilo liburuk aholkatutako irizpideak jorratzen dituzte: espazio egokia eta zabala gaia behar bezala lantzeko; trataera egokia genero ikuspuntuari dagokionez, baita arazo politikotzat hartzeko orduan ere. Irene Arraratsek dio arlo honetan bai eman dela bilakaera bat. Leku egokia ematea ez ezik, nolako espazioa gordetzen zaien gai hauei eta zelako garrantzia duten egunkarian nabarmen aldatu dela azken urteotan. Zentzu honetan, ikertutako albisteen %74etan egiturazko indarkeria gisa azaltzen dira hilketok, ez gertakari hutsak izango balira lez. Horrela jorratu ez diren gainontzeko edukiek, %26ak, espazio falta izan dute, gehien bat, kontrako faktore.

- Gertaeren deskribapen egokia: Emakumeen hilketan gertaera soilak ez diren aldetik, berauei eman beharreko trataera ere ez da nolana hikoia. Hilketaren berri ematen, batez ere, informazio baliagarriaren eta sentsazionalismoaren arteko marra gorria oso fina da. Hori dela eta, gertaeraren nondik norakoak ahalik eta modu zehatzenean, landuenean eta informatuenean ematea da egokiena. Hau da, gizona zkoak emakumezkoa nola hil duen esan behar den arren, labankada kopurua lehen lerroetan jartzea ez da zilegi hainbat estilo liburuk adierazten dutenez. Maite Asensiok dio, ordea, labankada kopurua testuan zehar agertu behar dela. Ez baita gauza bera lau labankadaz emakumezko bat hiltzea, edo 36 labankadaz. Amorrur hori agertu behar dela dio. Ikertutako albisteen %93ak aurrez aipatutako jarraibideak betetzen dituzte.
- Emakumezkoaren / erasotzailearen profil tipifikatua: indarkeria matxista kasuek eredu jakin bat ez duten bezala, erasotzaileak ere izaera eta itsura anitzekoak dira. Hau da, ez dago ez biktimaren ez gizona zkoaren patroia definiturik. Gertakari guztiek komunean duten elementu bakarra gizona batek hildako emakumeen kasuak direla da. Gauzak horrela, aztertutako informazio guztiaren %13an baino ez da identifikatu arestian aipatutako profil tipifikatua. Nagore Laffageren kasuan, esaterako, epaiketaren ardatzetako bat erasotzaileak mozkorra egonda edo ez eraso egin izana eztabaidatu zen. Berriak hala jorratu behar izan zuen albistea 2010eko azaroaren 5ean, eta erasotzaileen irudi bakar eta hegemonikoa eraikitzen eragin zuzena izan ez duen arren, aintzat hartu beharreko faktorea da. Ana Belen Jimenezen kasuan, aldiz, auzia bera gehien gertatzen den indarkeria motaren baitan dago: bikote harremanen baitako hilketak. Gai honetan bai biktimaren baita erasotzailearen irudiak estandarrak dira.
- Emakumezkoaren / erasotzailearen datu pertsonalak errespetatu: indarkeria matxista kasuetan bi aldeen irudia eta ohorea errespetatzea funtsezkoa da. Ikertutako kasuen %95etan bai

biktimaren baita hiltzailearen datuak errespetatu dira. Izen-abizenak, adina eta herria aipatzen da, normalean, kasu bakoitzean. Erasotzailearen kasuan, gainera, soilik bere aurkako akusazioren bat edo jada ustezko hiltzaile gisa atxilotzen dutenean zabaltzen dute bere izena.

- Emakumea errudun egin dezaketen iritziak / adierazpenak: Emakumezkoa hil izanaren erantzule eta kausa bakarra gizonezkoaren jarrera da. Emakumezkoak har ditzakeen jarrera edo erabakiak ez dute inolaz eraginik izan behar gizonezkoari ardura leuntzeko. Hau da, hirugarren pertsona baten esan ditzakeen iritziak emakumezkoaren bizimodu, joera, itxura fisiko edo janzkeraren inguruan, guztiz onartezinak dira. Hala baieztatu du Maite Asensiok solasaldian, beste pertsonen adierazpenek albisteotan lekurik ez dutela esatean. Gauzak horrela, soilik albiste batean antzeman da emakumezkoa errudun egin izanaren iritziren bat. Ez da kazetariaren ondorio bat, epaiketari mahai gainean jarritako hipotesia baizik. Berriak gertatutakoa xehetasunez kontatu behar duenez, ondo dago pasarte hau idatzi izana, baina Nagore Laffageren jarrerak ezbaian jartzen ditu. “*[...] Horren ondorioz, Laffagek Yllanesen jarrera “bortitza” sexu eraso gisako oker interpretatu zuela dio. Interpretazio oker horren eraginez, “Laffagek Yllanesi salaketa jarriko ziola mehatxu egin zion” (2009/11/14)*
- Aurretiazko testuingurua azaldu: hilketak indarkeria matxistaren izerbegaren punta baino ez direla aipatu da ikerketa hasieran. Horra iritsi aurretik, hainbat esparru hartzen dituen indarkeria estrukturala da: psikologikoa, ekonomikoa, fisikoa... Hori dela eta, hilketon berri ematerako orduan, bi aldeen testuingurua azaltzea garrantzitsua da. Hau da, bikote izanez gero banatzeko prozesuan zeuden eta gizonezkoaren aurkako salaketarik baden, esaterako. Kasuen %64etan aurretiazko testuingurua modu landuan eta txukunean azaldu da. Normalean, albisteak jorrazteko espazioa izan ohi da, eta irakurleari ere kokatzen laguntzen dion

elementua da. Aurretiazko testuingurua aipatzeak ez du soilik gertaera aurreko bizitza azaltzea esan nahi. Gertakaria jazo zenetik hilabete edo urte batzuetara berriz gaia berrartu behar bada, zer gertatu zen eta nola gertatu zen kontatzea ere garrantzitsua da. Ada Otuyaren eta Jenny Reboloren kasuan, epaiketa bi urte geroago izan zen, 2015ean, eta normala den bezala, irakurleak ez du zertan gogoan izan behar zer gertatu zen bi emakumezko horiekin (2015/04/22). Ana Belen Jimenezen kasuan, aldiz, senarrarengandik banantzeko prozesuan ziharduela dio albiste batek (2017/10/04). Epaiketa saioak lantzerako orduan, maiz epaitegian gertatutako baino ez da mugatzen kazetaria, testuingurua albo batera utziz. Lehen aipatu bezala, espazio kontua ere izan daiteke.


- Sentsazionalismoa: ikertutako kasuen %92etan ez da sentsazionalismoaren kutsurik ageri. Emandako informazioa zaindua eta biktima nahiz erasotzailearekiko errespetagarria zen. Hori da Berriaren ohiko joera. Hala ere, zenbait kasutan, informazio praktikoaren eta sentsazionalismoaren arteko marra oso fina da. Maite Asensiok aipatu bezala, “eskuragarri dauden datuak eman behar dira, gauza da nola ematen dituzun”. Zentzu horretan, sentsazionalismo gisa identifika daitezken pasarte batzuk ageri dira ikergaietan. Ikertutako albiste guztien %8etan baino ez da sentsazionalismoa antzeman, eta begirada zorrotzez ikertu ostean antzeman dira, ez baitira adibide nabarmenak. Melodie Masse hilik nola aurkitu zuten deskribatzeak, adibidez, arestian aipatutako marra gorria zeharka dezake (2017/09/15).
- Estereotipoak eta rolak / hizkuntza sexista: ohikoa izaten da indarkeria matxista kasuen berri ematerako orduan, emakumezkoen eta gizonezkoen gain dauden estereotipoak eta rolak aipatzea. Berriak, ordea, hasiera-hasieratik zehaztu zuen arlo hau bere estilo liburuan, Irene Arraratsek aipatu bezala. Baita hizkuntza sexistaren erabilera ere. Ez dira horrelako ñabardurarik



identifikatu ikerketa prozesuan, ez emakumezkoarengan ezta erasotzailearengan ere.

- Jarraipen egokia / mobilizazioen berri ematea: indarkeria matxisten kasuei jarraipena ematea arazoa lehen lerroan jartzea da. Hau da, hilketa gertakari hutsa izango balitz bezala jorratu ezker, eguneko albistera mugatuz eta albo batera utziz hilketek dakarten oihartzun mediatikoa, auzi politikoak ez direla baieztatzea bezala izango litzake. Garrantzitsua da elkarretaratzeen eta erreakzioen berri ematea. Lau kasuek jarraipen egokia izan dute, albisteen %64etan bilkuren berri eman baita, esaterako. Elkarretaratzeen berri ematerako orduan, mugimendu feministak zerikusi zuzena izan dute nabarmendu dute elkarrizketatuko hiru profesionalak.
- Sakoneko gehigarriak: indarkeria matxistari testuinguru egokia eman behar zaiela aipatu da lanean zehar, bada osaketa hori are borobilagoa bilakatzen da aditu baten gehigarriren batez lagunduta badao albistea. Analisisiek, elkarrizketek eta iritzi artikuluek osotasuna ematen diote auziari, eta kazetariari deritzenez, gaia ikuspegi politikotik jorratzeko parada ematen du. Hala azaldu du Maite Asensiok. Ada Otuyaren eta Jenny Reboloren hilketaren inguruan, hainbat hausnarketa egin zituen, baita adituak elkarrizketatu ere (2013/07/13; 2013/05/08).

### Emaitza orokorrak



### 5.2 Emaitzak kasuz kasu

Emaitza orokorrak emanda, auzi bakoitzak utzitako zenbakiak azalduko dira. Lehen egin bezala, emaitza kuantitatiboak emateaz gain, azalpen kualitatiboak ere agertuko dira. Ezer baino lehen, aipatu behar da lau auziak erabat ezberdinak direla euren artean, baita gaiok jorratu diren epealdiak ere. Nagore Laffagen kasuan 25 albiste ikertu dira, 2008-2016 urte bitartekoak. Gertakari zaharrena da. Ada Otuya eta Jenny Reboloren auzian, aldiz, hamahiru albiste landu dira, 2013-2015 urte artekoak. Melodie Massen hilketaren auzian, bost albiste argitaratu dira. Azkenik, Ana Belen Jimenezen kasua da berriena gertatu dena. Lau albiste baino ez dira ageri, 2017ko urriaren 4tik 7ra (biak barne).

- **Nagore Laffageren auzia:** Maite Asensiok aipatu duenez, berari Berrian lanean hasi berritan harrapatu zion gertaerak. Hilketaren gordintasunaz eta erasotzailearen hotsasuna ditu gogoan, nahiz eta ez duen gehiegi oroitzen nolako jarraipena eman zion Berriak auziari. Gauza bat dio Laffageri buruz: “Sentsazioa izan dut beti Nagore biko aldiz hil zutela. Are gehiago, sentsazioa daukat emakume baten hilotza

mendian botata agertzen denean deshumanizazio totala dela. Gerra estrategia bat bezalako iruditu zitzaidan, eta denborarekin ikuspegi hori berretsi dut". Eraitza orokorrak ematerako orduan ezarritako jarraibideari segika, hauek dira Nagore Laffageren auziko eraitzak:

- Titular informatiboa: titularrak egokiak, argiak eta zuzenak izan dira orokorra (%92). Elkarretaratzei buruzko albisteak egiterako orduan, maiz, titular askeagoak egiten direnez, kutsu informatiboa galtzen dute, eta auzia jarraitu ez duenarentzat, nahasiak izan daitezke. Dena dela, titularrok ere egokiak dira, ez baitira guztiak zertan informatiboak izan behar, baina, jada aipatu bezala, indarkeria matxista kasuen berri ematerako orduan argitasuna eta zuzentasuna eskatzen da.
- Egilea izendatu: eraitza orokorretan aurreratu da zein den joera nagusia egilea izendatzeko orduan. Bada, Nagore Laffageren kasuan eraitzak berak dira. %60 kasutan egileak sinatutako edukiak dira, %40tan erredakzioak edo izenik gabeko lanak dira. Auzi honetan, besteak beste, Naiara Elolak epaiketari egindako jarraipena azpimarragarria da. Lehen pertsonan bizi zuen eta hori ederki antzematen da albistearen trataeran. Analisiak ere egiteaz ere arduratu zen. Kazetariaren identifikazio gabeko lanik, arestian aipatu bezala, trataera zaindu hori galtzen dute, nahiz eta edukiak txukunak izan. Gainera, albiste laburretan erabiltzen dira gehien, eta hauetan nekez dago espazio nahikorik kasuak behar bezala jorrazteko.
- Kokaleku egokia: indarkeria matxista kasuak ez dira inoiz gertakari soilak izan Berriarentzat. Gizartea sailean jorratu ohi dituzte gaiok eta Nagore Laffageren aitzindarietako bat izan zen. Albiste guztiak bertan idatzitakoak dira, Sanferminetan egiten den oroimen elkarretaratze bat salbu, gehigarrian argitaratu baitzen. Urtero egiten den ekintza izanik, lekua berez ez da desegokia, bai, ordea, lanean bereizgarritasun gisa aipatzeko modukoa.
- Azalean erreferentzia: Hilketaren lehen egunetan eta epaiketak iraun bitartean agertu da Laffageren kasua azalean. Baita epaia

ebatzi zenean ere. Kontuan hartuta 2018an hamar urte beteko direla Diego Yllanesez Laffage hil zuenetik, ez dira gutxi izan lehen lerroan agertu diren albisteak. 25 albistetik, %40tan agertu da. Denborak aurrera egin ahala, ez baitute ahantzi erredakzioan 2008ko Sanferminetan izandako hilketa.

- Biktimaren argazkia: Berriak ez ditu argazkietan biktimaren irudiak jartzen. Nagore Laffageren kasua ez da salbuespena. Hamar urteotan ez da bere argazkitik argitaratu Berrian, ez behintzat modu zuzenean. Elkarretaratzeetan agertutako argazkien erantzukizuna ez baitagokio kazetariari.
- Erasotzailearen argazkia: Diego Yllanesez hil zuen Nagore Laffage. Bere irudia argazki gisa agertu den kasu bakanetan, epaiketarekin lotutako albisteetan izan da. Hau da, ez hilketa gertatu berritan, ez epaiketa ondoren, ez da bere argazkirik argitaratu. Nagore Laffage buruz dagoen informazio guztiaren %20etan. Balio informatiboa gehitu zion bere garaian erasotzailearen irudia albistean jartzeak, emakume bat hiltzeaz akusatutako gizon bat baita. Berriak biktimarengan jartzen duela fokua ondorioztatzen dute epaiketan soilik jarri izanak Yllanesen irudia.
- Argazki informatiboa: Nagore Laffagen kasuan, hilketaren albistea, epaiketa eta erreakzioa salbu, elkarretaratzez josita dago. Laffageren auziak arrakala handia eragin zuen gizartean. Gauzak horrela, 25 albistetik hamasei kasutan kazetariak aukeratutako argazkia erabat informatiboa izan da. Gehienetan Asun Casacola ageri da, Nagore Laffagen ama. Bera bilakatu da auzi honen aurpegi ezaguna. Zortzi albistetan, ez da inongo albisterik ageri. Laburrak dira guztiak.
- Indarkeria matxista / genero indarkeria hitza hasieran: Nagore Laffage jada duela hamar urte hil zuten. Duela hamar urte gauzak ez ziren egungo argitasunarekin ikusten. Hala ere, batez ere webgunean, Nagore Laffagen kasua emakumeen aurkako indarkeria gisa izendatzen hasi ziren. Paperean zintarik ez


dagoenez, ez behintzat 2008-2010 urteko diseinuan, albistearen kontaketatik identifika zitekeen indarkeria matxista kasua zela. Joera nagusia, ez indarkeria matxista, ez genero indarkeria terminoak ez erabiltzea baitzen. Kasuen %80etan horrela ikusi da. Beste %20an indarkeria matxista ageri da, gehien bat mugimendu feministak egindako elkarretaratze edo adierazpen batzuen ondorioz.

- Egiturazko indarkeria gisa azaldu: gaiaren konplexutasunagatik, albistea jorrazteko espazio zabala behar zen, bai gertakari hasieran, baita ondoren ere. Hori dela eta, gaia egiturazko indarkeria gisa azaltzea garrantzitsua izan da Laffagen kasuan. Hala egin da kasuen %64etan, albisteari sakontasuna eta testuingurua emanaz. Elkarretaratzeekin nahiz epaiketako saioekin egin den kasua da. Gizartearen sakoneko arazo baten ondorio gisa azaldu ez den kasuetan, ia kasu guztietan bezala, espazio faltagatik izan da.
- Gertakarien deskribapen egokia: Irene Arraratsek elkarrizketan aipatu bezala, gizarte saileko kazetariak jada “espezialistak” dira gaiok lantzen. Emaitez iritzia berresten dute: albisteen %88etan gaiaren ernamuina behar bezala azaldu da, xehetasunez, tentuz eta modu zuzenean; 25 albistetatik 22. Hala azaldu ez diren kasuetan, hiru albiste baino ez dira, erredakzioak sinatutako lanak eta albiste laburrak izan dira.
- Emakumearen / erasotzailearen profil tipifikatua: ez da ohikoa Berriak hanak sartzea horrelako irizpideetan. Beste hedabide batzuek ez bezala, ez baitio aurpegi finka bat jartzen ez erasotzaileri, ezta biktimari ere. Nagore Laffagen kasuan, ordea, epaiketak hala eskatuta, Diego Yllanek Nagore Laffage alkoholaren eraginpean zegoela edo ez eztabaidatu zen. Hala gertatu zenez, Berriak hala kontatu behar du, agerian utziz justiziaren alde patriarkala. Mozkortuta egonda, ala ez, sententzia ebazteko orduan erabakigarria izan baitzen. Horrelako hiru albiste baino ez dira identifikatu, %12.

- Emakumezkoaren / erasotzailearen datuak errespetatu: Nagore Laffagen eta Diego Yllanesen datu pertsonalak erabat babestu ditu prozesu guztian zehar Berrian: kasuen %96etan. Yllanes medikua zela zehazteak, oro har, ez dio funts berezirik gehitzen albisteari. Hala ere, kasu honetan ondo dago aipatzean harreman profesionala medio ezagutzen baitziren elkar Laffage eta Yllanes (2010/11/05). Asun Casasolari eginiko elkarrizketa batean, Nagore nolakoa zen azaltzen du, eta ama baten testigantza izanik ulergarria den arren, kasuari sentsazionalismoa baino ez dio gehitzen (2009/01/23). Hala ere, kasu isolatuak dira.
- Emakumea errudun egin dezaketen iritziak / adierazpenak: Epaiaketak hala eskatuta, Laffagen jarrera ezbaian jarri zuen fiskalak, eta Yllanesi salaketarekin mehatxatu izana, hilketaren kasuetako bat izan zela iradoki zuen (2009/11/14). Gainontzeko albiste guztietan, emakumezkoaren jarrera ez da zalantzan jartzen, kasuen %96 dira.
- Aurretiazko testuingurua azaldu: Jada txostenean zehar aipatu bezala, Nagore Laffageren auziak ditu albiste gehien, 25. Duela hamar urteko gertakaria da, eta urtero Sanferminetan bere omenez egiten den elkarretaratzearen berri ematea ia ohitura bilakatu den Berriarentzat, kasuari testuingurua ematea funtsezkoa da. Kasuen %76etan gertakaria hasieratik kontatzen da, eduki berrietan hilketa eta epaiketa barne hartuta.
- Sentsazionalismoa: Oihartzun mediatuko handia sortu zuen kasua da Nagore Laffagerena. Auziaren lehen albistetan, xehetasun guztiak jazotzeko ardurarekin, sentsazionalismoaren marra gainditu zen kasu bakanean. Gorpua aurkitu zuten herriko bizilagunen inpresioak, kasu. Bizilagunak “asaldatuta” edo “gertatutakoa sinetsi ezinik” zeudela esateak ez du inongo balio informatiborik eta emozioetan oinarritutako adierazpenak dira. Gainontzeko albisteen %88ak ez du sentsazionalismoaren zertzeladarik.

- Estereotipo eta rolak: ez da ez emakumezkoaren ez erasotzailearen inguruko estereotiporik identifikatu, ezta rol inposaketarik ere. Hizkuntza ere egokia izan da oro har.
- Jarraipen egokia / mobilizazioen berri eman: duela hamar urte gertatutako hilketa bati buruz, gaur egun ere oihartzuna ematen zaiola ikusita, jarraipena arduratsua eta oso egokia dela esan daiteke. Diego Yllanesi hirugarren gradua eman diote 2018ko martxoan, eta albiste labur baten bidez horren berri eman izanak, gaiarekiko konpromisoa adierazten du. Gainontzean, ikertutako albisteen %64 jarraipen egokia izan dute: epaiketaren egun guztiak kontatu ziren, hainbat elkarretaratzeen berri eta hauen segida eman zen, eta instituzioen adierazpenak ere jaso izan dira.
- Sakoneko gehigarria: indarkeria matxista kasuetan albisteari osotasuna emateko asmoz, sakoneko gehigarri bat argitaratzea gomendagarria den heinean, ez zen hain joera ohikoa duela hamar urte. Nagore Laffagen kasuan, 25 albistetik hirutan baino ez dira ageri, %12. Dena dela, batez ere analisiak diren aldetik, eginiko lana baliotsua eta ona dela azpimarratu behar da (2009/11/14).

### Nagore Laffagen auzia



- **Ada Otuyaren eta Jenny Rebolloren auzia:** oso gai gordina da 2013an gertatutakoa. Lehen albisteak emakume baten hilketak eta beste bat larriki zaurituta ospitalera eraman zutenekoa da. Biak Bilboko erdigunean gertatutakoak. Gizon bat atxilotu zuten, eta biharamunean ospitalean zegoen emakumea hil egin zela jakin zen. Maite Asensiok dio oso "morbosoa" izan zela dena, eta hainbat hedabidetako erredakzio buruek "odola" eskatzen zirela hilketak gertatutako gimnasia josten ziren kazetariak. Lehen unean informazioa bazegoen dio Asensio, baina ez asko. Berriak bi orri ateratu zituen, El Correo hamar. Hedabideek gaiari emandako trataera, eta bi emakumezkoak prostituta izateak erabat lerratu zuten bi urtez kasuaren jarraipena.

- Titular informatiboa: Ada Otuya eta Jenny Rebolloren kasuak hamahiru albiste hartu dira ikergai bezala. Hilketaren biharamuneko egunetatik hasi, eta epaiketaren ebazpena jorratzen da bi urteko epealdian. Albisteen %92ak titular zuzena, egokia eta esanguratsua dute. Hau da, argi ulertzen da gaiaren mamia eta ongi laburtzen du edukia.
- Egilea izendatu: zenbakietara mugatuz gero, esan daitezke auziak izan duen jarraipena kazetarietarako ez dela erabat egokia izan, edukien %54 erredakzioak sinatutako albisteak baitira. Erredakzioak sinatzea ez du esan nahi gaizki jorratuta dagoenik, inundik inora, baina kasu batzuetan eragiten du. Dena den, gainontzeko albisteak, %46, Garikoitz Goikoetxeak, Maite Asensiok eta Arantxa Iraolak eginikoak dira, besteak beste.
- Kokaleku egokia: arestian aipatu, eta elkarrizketatuek berretsi bezala, aspaldi utzi zitzaizkien indarkeria matxista kasuei gertakari hutsak izango balira bezala tratatzeak. Hori dela eta, albiste guztiak gizartea sailean daude argitaratuta, eta gehienak, hilketak asteko albisteak eta epaiketakoak gehien bat, lehen orrietan ageri dira.
- Azalean erreferentzia: Ada Otuya hilik agertu zen eguna igandea zen, eta Berriak, ez gaur ezta orduan ere astelehenetan ez duenez egunkaria ateratzen, asteartean jorratu zen gaia. Azaleko



argazki nagusia eta barruko ia hiru orri eskaini zitzaizkion auziari. Hurrengo egunetan ere ildo bera jarraitu zuten, eta gaiak garrantzia lortu zuen astebetez. Albisteen %30 dira. Elkarretaratzeak, normalean, ez dira azalean aipatu, kasuen %70ak.

- Biktimaren argazkia: gainontzeko kasuetan bezala, Ada Otuyaren eta Jenny Rebolloren kasuan ere ez da beraien argazkirik argitaratu. Laffagerenean gertatu bezala, ez behintzat modu zuzenean. Zenbait kasutan elkarretaratzeetako pankartetan ikusi daitezkeen arren (2013/06/05).
- Erasotzailearen argazkia: Juan Carlos Aguilar izan zen bi emakumezkoen hiltzailea, epaileak hala ebatzita. Prozesu guztian zehar fokupean egon da hainbat hedabidek hala nahi izan dutelako. Batez ere, Shaolin faltsua goitizenez ezagutzen da, eta auziaren ernamuetik desbideratzeko bere zaletasunei eman zitzaien lehentasuna. Hala nola, karate maisua zela. Epaietak iraun bitartean argitaratu zen bere argazki bat edo beste, albisteen %38etan.
- Argazki informatiboa: mobilizazio izan ziren Bilbon bi hilketok gaitzesteko. Mugimendu feministak, eta komunitate beltzak dei eginda, hiriak ozen arbuatu zuen indarkeria matxista. Albisteen argazkietan ere hala antzematen da, irudi indartsuak baitira gehienak, %76etan zehazki. (2013/05/13)
- Indarkeria matxista / genero indarkeria kontzeptuak hasieran: arestian aipatu bezala, oihartzun handia izan zuten bi hilketek Bilbon. Batez ere mugimendu feministak eginiko manifestazio deialdiak direla eta, haiek argi esaten baitute horrelako kasuak indarkeria matxista direla, albistearen lehen zatian irakur daiteke. Albisteen %23etan hala izan da. (2013/06/08)
- Egiturazko indarkeria gisa azaldu: Ada Otuyaren eta Jenny Rebolloren kasua bereziki konplexua da indarkeria matxistaren baitan. Emakumezkoak ez ezik, etorkinak eta prostitutak baitziren. Hau da, zapalkuntza hirukoitza jasaten zuten. Hori dela eta,


edukiaren ardatzean egiturazko indarkeria azaltzea garrantzitsua da. Hala izan da albisteen %85etan (2015/04/17).

- Gertakarien deskribapen egokia: izan elkarretaratzeen berri emateko, fiskalaren erabakia jazotzeko edo hilketen berri emateko, Berriak erabateko konpromisoa erakutsi du gaiarekiko eta kasu guztietan gertakariak behar bezala azaldu ditu. Salbuespenik gabe.
- Emakumearen / erasotzailearen profil tipifikatua: kasua bera nahiko ez-ohikoa den arren, alde batetik biktimak bi direlako, eta bestetik, bi aldean profilak oso bereziak direlako, profil tipifikatu gisa azaltzea lan nekeza izango litzake. Hori dela eta, eta beste faktore batzuk direla medio, hala nola, Berriak ez duela ez erasotzailearen ez biktimaren profil estandar bat irudikatzen, albisteetan ez da irizpide honen adibiderik topatu.
- Emakumezkoaren / erasotzaileen datu pertsonalak errespetatu: erabat errespetatu dira bai biktimen ohorea baita erasotzailearena ere.
- Emakumea errudun egin dezaketen iritziak / adierazpenak: ez da hirugarren pertsona batek emandako iritzi edo adierazpenik ikusi ikerketan zehar.
- Aurreko testuingurua azaldu: asko hitz egin zen Aguilarri buruz hedabideetan kasua pil-pilean zegoen bitartean. Biktimez, ordea, gutxi batzuk oroitu ziren. Berria horietako bat izan zen. Elkarretaratze, epaiketa edo dena-delakoa kontatzeko orduan, biktimak ardatz hartuta, aurretik gertatutakoa behar bezala landu zuten. %73etan hala gertatu da (2015/04/22).
- Sentsazionalismoa / estereotipoak / hizkuntza: Hilketok jakin eta astebetara, Bilboko feministek manifestazioa antolatu zuten zenbait hedabidek hartutako joera sentsazionalista salatzeke. Baita, gaia desbideratzeko asmoz, Aguilarren bizitza erdigunean jarri izana eta biktimak errudun egin izanak leporatu zituzten feministek komunikabideak (2013/06/13). Berriari ezin zaio halakorik leporatu, ez baita horikeriaz aritu albiste bakar bat ere

aurkitu, ezta hizkuntza desegokia erabilitakorik ere. Estereotipoak ere albo batera utzi dituzte kasu honetan.

- Jarraipen egokia: Gaia gertutik jorratu zuen Berriak. Maite Asensio Bilbon zebilen orduan lanean, Berriak bertan duen erredakzioan. Albisteen %62k elkarretaratze edo mobilizazioen berri eman dute, eta gainontzeko %38ak, epaiketa saioak edo manifestazioak izan dira. Izango ziren Berrian ahotsik izan ez zuten egitasmoak, baina oro har, guztien jarraipen zurruna egin du.
- Sakoneko gehigarria: Maite Asensiok dio “pertsonalki” ardur handia suposatu zion gaia dela Ada Otuyarena eta Jenny Rebolloreana. Bera arduratu zen hainbat analisi egiteaz (2013/06/13), eta elkarrizketak bilatzeaz. Hilketak gertatu berrian, albisteak osatuak eta landuak daude. Hau da, aditu bati egindako elkarrizketaren bat, edo analisisaren bat dute amaieran. Epaiketa hasi aurreko egunkarian ere, kasua berrartzen den heinean, testuingurua behar bezala kontatu eta feminismoan doktorea den aditu baten elkarrizketa argitaratu zen (2015/04/17)

### Ada Otuya eta Jenny Rebollo



- **Melodie Masseren auzia:** “Iparraldeko egoera betena kezagarria da. Bertako populazioa txikia dela kontuan hartuta, urtero hiltzen dute baten bat, eta urte batzuetan bat baino gehiago. Proporzionalki kopuru handia da”. Maite Asensioren hitzak dira Melodie Masseren gaiaz galdegindakoan. Aipatutakoaz gain, kasuaren inguruan “sekulakoak” esan zirela dio. Besteak beste, pobreziaren aurkako estigmatizazioa. Erasotzailea, etxegabea baitzen, eta iritzi publikoaren ahotsak elementu horretan zentratu ziren, hilketan baino gehiago. Melodie Masse haurdun zegoen, zortzi hilabeteko umekia zeraman sabelean. Kasuaren krudelkeriak agerian uzten du Berriarentzat erronka bat izan zela kasua jorratzea, informazio eza, ezjakintasuna eta hipotesiak nahi beste izan baitziren. Oraindik ez da epaiketarik egin erasotzailearen aurka. Kasuari buruzko bost albiste argitaratu dira paperean.

- Titular informatiboa: lagina txikia izan arren, kasua konplexua da. Dena dela, albiste guztiak egoki titulaturik daude; estilo zuzenean, argi eta labur.
- Egilea izendatu: arestian aipatu bezala, egilea aipatzeak sinesgarritasun kutsua gehitzen dio testuari. Melodei Masseren kasuan albisteen %80a kazetariaren izenez dago sinatuta. Nora Arratibel, Eneko Etxegarai Urain, besteak beste. Ipar Euskal Herrian gertakariez arduratu ohi dira sarri bi kazetariok.
- Kokaleku egokia: gainontzeko kasu guztietan bezala, Melodie Masseren kasuak espazio zabala eta egunkariarentzat toki garrantzitsuetako baten kontatu zuten. Albiste guztiak gizartea sailaren barruan daude, eta egunaren arabera, baita albistearen garrantziagatik, aurrerago edo atzerago daude. Oro har, egoki eta txukun.
- Azalean erreferentzia: aztertu diren bost albistetatik, bi azalean ageri dira. Hau da, %40. Kontuan hartuz bat hilketaren berri emateko egunkaria dela (2017/09/15), eta bestea hiru egun geroago indarkeria matxista gaitzesteko egindako elkarretaratze

bat dela (2017/09/19), balantzea positiboa da. Jarraikortasuna eta inplikazioa suposatzen baititu.

- Argazkiak: Melodie Massen identitatea ez zen publiko egin, hortaz Berriak ez zuen inongo aukerarik bere argazkia albistearen alboan jartzeko. Hala ber, ikusitakoak ikusita, ez dirudi egingo zuenik ere. Erasotzailearen argazkiak ere ez da ageri bost albisteotan. Lau irudi informatiboak dira, prokuradorearena, gertakaria jazo zen etxearena eta Melodie Masse oroitzeko eginiko elkarretaratze batena. Albiste bat da soilik argazkirik ez duena.
- Indarkeria matxista / genero indarkeria: Hego Euskal Herrian ez bezala, Ipar Euskal Herrian mugimendu feministak kasu batzuetan bi aldiz pentsatzen du ezer indarkeria matxistatzat jo aurretik. Hori dela eta, eta beste faktore batzuk kontuan hartuta, albiste bakarrean identifikatu da gertakaria indarkeria matxista bezala (2017/09/23).
- Egiturazko indarkeria gisa azaldu: indarkeria matxista hitza albistearen lehen lerroetan agertzeak ez du esplizituki auzia behar bezala jorratu ez denik. Are gehiago, Melodie Massen kasuaren berezitasunak kontuan izanda – euren artean harremanik ez zuten gizon eskale batek 23 urteko emakumezkoa hiltzea, zortzi hilabeteko haurdun zegoelarik –, egiturazko indarkeriaren muineraino joatea lan mardula zen. Hala ere, albiste guztietan gizartearen arazoa agerian uzten da, eta beste hedabide batzuetan egin ez bezala, pobrezia ez zitzaion zuena baino garrantzia gehiago eskaini. %100.
- Gertakarien deskribapen egokia: albiste guztien edukiak behar bezala jorratuta daude, eta xehetasun eta tentu handiz kontatzen dira zenbait egoera. Kasu guztietan, dena behar bezala ulertu da, eta gertakarien deskribapena landua izan dela ebatzi daiteke. %100.
- Emakumearen / erasotzailearen profil tipifikatua: gertakariaren bi aldeak gainontzeko indarkeria matxista kasuekin duten antzekotasun bakarra, biktima emakumezkoa eta erasotzailea


gizonezkoa dela da. Hortik aurrera, guztia da ez-ohikoa Melodie Massen kasuan. Batez ere, erasotzailearen profila. Hori dela eta, Berriak ez du bi aldeen irudi tipifikaturik saldu.

- Emakumezkoaren datu pertsonalak errespetatu: izen-abizenak, data eta herria aipatzeak identitatea eta izaera ematen dio albisteari. Hortik aurrera, biktimaren inguruan esan daiteken guztia bigarren mailakoa izan daiteke. Besteak beste, bere ikasketak aipatzea (2017/09/15). Kasu bakarrean bakarrik topatu da halakorik. Gainontzekoetan Melodie Massen ohorea errespetatzen da.
- Erasotzailearen datu pertsonalak errespetatu: kasu guztietan zaindu dira erasotzailearen datu pertsonalak.
- Aurretiazko testuingurua azaldu: ezer gutxi dago aipatzeko arlo honetan, hainbat iturrik zehaztu zuten, bi aldeek ez baitzuten elkarren berri hilketaren unera arte. Albisteen %80ak ez du testuingururik. Gauzak horrela, soilik albiste batean azaldu da aurretiazko testuingurua, %20a baino ez da. Zehazki, erasotzailearen aurrekari penalak aipatzen ditu (2017/09/19).
- Sentsazionalismoa: jada behin baino gehiagotan aipatu denez, kasua berezia da. Erasotzaileak biktima bortxatu zuen hil aurretik, beso eta hanketatik lotuz. Dena dela, xehetasun guztiak bata bestearen ondoan jartzeak, informatzeko baino ikusgarritasuna lortzeko egin dela dirudi. Bortizki jipoitua izan zela esatea nahikoa da, ez da beharrezkoa “kolpeen ondorioz aurpegia handituta zuela; logelako ohearen gainean, biluzik, eskuak zein zangoak loturik, begiak tapaturik eta ahoan mozala zuela aurkitu zuen” (2017/09/15).
- Estereotipoak / rola / hizkuntza sexista: “Berriak ongi markatua du joko zelaia hizkuntzari dagokionez”, dio Irene Arraratsek elkarrizketak. Hala dirudi, izan ere, kasu honetan ere ez da horrelakorik aurkitu.
- Jarraipen egokia: mugimendu feministari kostatuta zegoen arren indarkeria matxista kasutzat jotzea Melodie Masseren hilketa,

behin hala izanda, Berriak Ipar Euskal Herrian egindako ia elkarretaratzeak jazo zituen, baten bat ihesiko baitzituzen. Soilik azken berrian ez zen mobilizazio baten berri eman, behar bada, gehiagorik ez zegoelako.

- Sakoneko gehigarria: kasua ez-ohikoa den arren, Berriak ez zuen aukera aprobetxatu aditu bat elkarrizketatzeko edo gai sakonduko lukeen analisi bat jorratzeko.

Melodie Masse auziaren emaitzak



- **Ana Belen Jimenezen auzia:** bikote-harremanaren barruan emandako hilketa bat da Ana Belen Jimenezen auzia. Banantzeko prozesuan zeuden, eta senarrak hil egin zuen. Kasuak “sinplea” dirudien arren, uste baino konplexuagoa izan zen erredakzioarentzat. “Gure irizpideen arabek, hildakoak dira: Euskal Herritarrak, Euskal Herrian jaiok direnak, edota Euskal Herrian bizi proiektua dutenak. Kasu honetan bera arabarra zen, hortaz, irizpideetan sartzen zen, baina kanpoan hil zuten. Horregatik, irizpide aldetik eromena izan zen”, dio Maite Asensiok auziaz. Gainera, erasotzailearen estrategiak ere harridura sortu zuen. Ana Belen Jimenez indarkeria matxistaren ondorioz hildako zazpigarren biktima izan zen iaz EAEn.

- Titular informatiboa: Ana Belen Jimenezen kasuan jorratutako titular guztiak egokiak, zuzenak, argiak eta emakumea lehenetsiz eman dira. %100.
- Egilea izendatu: beste kasuetan aipatu bezala, egilearen aitortzak sinesgarritasuna, gertutasuna eta balioa gehitzen dio albisteari. Albisteen %80a izan dira. Soilik kasu bakarrean aurkitu da albiste bat erredakzioaren sinadurarekin, %20.
- Kokaleku egokia: 2017ko albistea izanik, indarkeria matxista kasu bat gizartea sailean argitaratu ez balitz, hanka sartze larria izango litzake. Ez da kasua. Albiste guztiei espazio esanguratsua eta garrantzia eman zaie, batez ere lehenengo biei, hilketaren ingurukoak direnei. Gainontzekoak, halaber, ez dira bigarren mailako albisteak izan, inondik inora. %100.
- Azalean erreferentzia: lau kasutatik bik dute erreferentzia azalean eta bik ez. Hau da, edukia oinarrian hartuz, %50eko presentzia izan dute gaiok lau eguneko epean Berrian. Lehen bi egunetakoak dira portadan ageri direnak (2017/10/04 - 2017/10/05).
- Argazkia: ezta albiste bakar batean ere ez da ageri ez biktimaren ezta erasotzailearen argazkirik. Bien irudien babesa bermatu da. Lau argazkitik bitan, elkarretaratze banarekin osatu dute albistea. Beste biek ez dute argazkirik, espazio kontua dela-eta. %50 - %50.
- Indarkeria matxista / genero hitza hasieran: Albisteen erdietan, Ana Belen Jimenezen kasua indarkeria matxista dela argi aipatzen da, zazpigarren biktima dela zehaztuz (2017/10/04 - 2017/10/05). %50-%50.
- Egiturazko indarkeria gisa azaldu: behin indarkeria matxista kasutzat jota albistea, egiturazko arazoa dela argi uztea errazagoa da. Berriak oso ondo egin du lan hori, auziari garrantzia emanez. Dena dela, erasotzailearen atxiloketa labur batean biltzea ez dirudi aukeraketarik onena izan den (2017/10/07).




- Gertakarien deskribapen egokia: lau albisteetan, berria izan den ekimena, azken ordua, edo erabakia behar bezala kontatu da. %100.
- Emakumearen / erasotzailearen profil tipifikatua: Espainiako legediak genero indarkeriari buruz egiten duen deskribapena kontuan izanda, kasu hau erabat ohikoa da. Hori dela eta, batez ere erasotzailearen, irudia eta portaera, guztiz tipifikatuak dira. Hori bai, kasuen %20an baino ez da modu argian islatu hori (2017/10/07). Gainontzean, ez da horrelakorik aurkitu.
- Emakumezkoaren / erasotzailearen datu pertsonalak: oro har, bi aldeen datu pertsonalak erabat errespetatu dira. Izen-abizenak, adina eta herria esan dira bi kasuetan. Hala ere, biktimaren kasuan, albiste batean bere arlo profesionala aipatzen da, inongo informazio baliotsurik gehitu gabe albisteari (2017/10/05).
- Emakumezkoa errudun egin dezaketen iritziak / adierazpenak: ez da horrelakorik ikusi lau albisteetan. Gaur egun, eta iraganean ere ez da esparru honen joera argirik antzematen, Berriak ez ditu hirugarren pertsonen edo lekukoen iritzi pertsonalak erabiltzen albisteak osatzeko. Barne deontologiatik kanpo dago.
- Aurretiazko testuingurua azaldu: Ana Belen Jimenez bere senarrarengandik banatzeko prozesuan zegoen. Garrantzitsua da datu hori argi uztea, gertakarien testuingurua osatzen laguntzen baitute. Gainontzean, aurretik gertatutakoa ere eguneko berriaren aurretik azaltzea garrantzia da. Hala egin du Berriak Ana Belen Jimenezen kasuan. Albiste guztiak baitute aurretiazko testuingurua ongi kokatua.
- Sentsazionalismoa / estereotipoak / rolak: ez da horrelakorik ikusi Ana Belen Jimenezen kasuan.
- Jarraipen egokia: Ana Belen Jimenezen kasuak zeresan handia eragin zuen, Araban gehien bat. Elkarretaratze horien berri lau albistetik bitan eman zuen Berriak (2017/10/05 - 2017/10/06). Azken kasuan, urriaren 6koan, Clara Campoamor Elkarteak epaiketari akusazio moduan parte hartuko duela esaten da.

Xehetasunok osotasuna ematen diote albisteari. Beste bi albisteetan, ez da mobilizazio baten edo ekintza baten berririk ematen.

- Sakoneko gehigarria: Norma Vazquez psikologoa elkarrizketatu zuen Berriak Ana Belen Jimenezen auziari sakontasuna emateko. Erasotzaileen andreak baino gehiagok estatusak galtzeak inporta diela dio titularrak. Lau albistetik, baina, adibide bakarra da (2017/10/05). Bestean baita indarkeria matxista kasu bat kontatzen da (2017/10/06).

Ana Belen Jimenezen auzia



### 5.3 Eragileen begirada

Maite Asensiok indarkeria matxista kasuetan duen ardura eta Berrian lortutako esperientzia kontuan izanik, kasu bakoitzari buruz bere iritzia ematea eskatu genion elkarrizketan. Auzi bakoitza barrutik nola landu zen jakitea izan da, batez ere, atal honen xedea:

**Nagore Laffage:** Berriak duela hamar urte ez zuela egungo heldutasuna kontuan izanda, Nagore Laffagen auzia bilakaeraren adibide egokia izan daiteke. Izan ere, jada 2008an gaur egun hezur mamituta dauden ideien zertzeladan atzematen dira. Are gehiago, kasuari emandako trataerak besteei

bidea ireki die, eta eredugarritzat har daiteke. Kasuaren krudeltasuna medio, Berriak Asun Casasolari emandako protagonismoa erabat justifikatuta dago. Nagorerentzat justizia eskatzea ez ezik, ahalduntze prozesuaren beste eredu bat baita. Hasierako adierazpenetan alaba justifikatzen zuen bitartean – edozeinekin ez litzatekeela joango, ez zela mutilzalea ... esaten zituen – hilabeteek aurrea egin hala, bere diskurtsoa aldatzen joan zen, Nagorek edozeinekin harremantzeko eskubidea zuela aldarrikatuz. Berriak ere bide bera hartu du auzi honetan: pixkanaka konplexuak kendu ditu. Hasieratik edukiei emandako trataera bikaina izan den arren, epaiketa garaian hainbat kontzeptu hobetu zituzten: hala nola, analisiak gehitzea kontakizunei. Gainera, urtez- urte Sanferminetan egiten den elkarretaratzearen berri emateak gaiarekiko erabateko konpromisoa adierazi, eta Nagore Laffagen kasua ez zela “beste bat gehiago” izan berresten du.

**Ada Otuya eta Jenny Rebollo:** kasu bakarren bi biktima daudenean, erasotzaile berak hildakoak, sentsibilitate eta arrisku maila areagotu egiten du. Maite Asensiok gogoan du nola gertakaria lantzen ari zela, hainbat komunikabideetako lankideei “odola” eskatzen zieten. Genero ikuspegia ez duen medio batentzat oso “morbosoa” izan baitaiteke auzia. Bilboko feministek hala salatu zuten, hedabide batzuk emandako trataera “lotsagarria” zela, eta auzia Juan Carlos Aguilarren bizian zentratu beharrean, bi emakumezkoak kanpotarrak eta prostitutak zirela eztabaidatu behar zela. Berriak azken puntu horretan jarri zuen fokua bereziki, gertakariak behar bezala kontatzearekin batera: adituak elkarrizketatu zituzten, prostituzioan dabilzan emakumeekin lan egiten duten elkarteetara jo zuten informazio bila, eta feministen aholkuei kasu egin zien. Epaietaren garaian, gainera, lehentasuna eman zitzaion auziari. Auziaren konplexutasuna jakinda, balorazioa oso ona atera daiteke egindako ikerketatik.

**Melodie Masse:** aurretik aipatu bezala, Ipar Euskal Herrian indarkeria matxistaren oinazea izugarria da Hego Euskal Herriko biztanle kopuruarekin alderatuz gero. Melodie Masse kasu iazko azken kasua izan zen, eta kontuan izanik Frantziako Estatuan gaur gaurko oraindik gertakariok ez direla indarkeria

matxistatzat hartzen, Berriaren egitekoa bikoitza da: batetik, ikuspegi nazionala bere oinarrietako bat den aldetik, gaiok behar bezala jorratu behar ditu, nahiz eta informazioa nabarmen urriagoa den. Bestalde, egiturazko arazo gisa azaldu behar dituzte, eta, oro har, bertako biztanleriari oraindik arrotza zaio hala identifikatzea. Ohitura faltagatik, besteak beste. Faktore guzti hauek kontuan izanda, Berriak Melodie Massen hilketari egindako jarraipena guztiz profesionala izan da. Hilketa erabat krudela izan zen, eta Berriak ahalik eta tentu gehienarekin landu zuen albiste hura, sentsazionalismoaren eta informazio baliagarriaren marra zeharkatu gabe. Hala ere, trataera egokia eman zaie albisteei, egunkariko espazio esanguratsua horretara bideratuz, eta hizkera ere egokia izan da. Hutsegiteei dagokionez, bakarra eta azpimarragarria: ez du sakoneko gairik landu auziari testuingurua emateko. Erasotzailea etxegabea zela jakinda, eta hainbat mediok pobreziaren inguruan egindako trataera desegokia kontuan izanda, aukera paregabea zen gaia lantzeko. Batez ere, gizonezkoek duten indarkeriaren monopolioa mahai gainean jartzeko.

Argazki informatiboa		<b>Bai</b>	<b>Ez</b>
Argazki oina			
<b>TRATAERA</b>			
<b>TRATAERA</b>	<b>EZAUGARRIAK</b>		
Indarkeria matxista edo genero indarkeria hitza hasieran	Sarreran: "Indarkeria matxistaren ondorioz aurten hildako zazpigarren emakumezkoa da"	<b>Bai</b>	<b>Ez</b>
Egiturazko indarkeria gisa azaldu	Hasieratik argi uzten du indarkeria matxistaren kasu bat dela, eta ondoren albisteari ematen zaio trataerak hori adierazten du. Lehen paragrafoak oso ondo laburbiltzen du gertaera eta problematika.	<b>Bai</b>	<b>Ez</b>

Gertakarien deskribapen egokia	Zehatz eta trataera egokiz	Bai	Ez
Emakumezkoaren/erasotzailearen profil tipifikatua	Bikotekide ohiak hildako emakumezko baten kasua izanik, ohiko gertakaritzat jo daiteke.	Bai	Ez
Emakumezkoaren datu pertsonalak errespetatu	Biktimaren datuak ematen dira, izenaren siglak eta bi seme-alaben ama zela. Hala eta guztiz ere, informazioa gehitzen diote albisteari.	Bai	Ez
Erasotzailearen datu pertsonalak errespetatu	Bikotekide ohia baino ez dela dio.	Bai	Ez
Emakumezkoa errudun egin dezakeen adierazpenak/iritziak		Bai	Ez
Aurretiazko testuingurua azaldu (salaketa, aurrekariak)	Banatzeko prozesuan zehaztu dio albisteak,	Bai	Ez
Sentsazionalismoa		Bai	Ez
Estereotipo/ rolak		Bai	Ez
Hizkuntza sexista / desegokia		Bai	Ez
Jarraipen egokia / mobilizazioen berri eman	Ez du elkarretaratzeen berririk ematen.	Bai	Ez
Sakoneko gehigarria	Testuingurua ematen dion beste gertakari bat du ondoan.	Bai	Ez

**FITXA TEKNIKOA**

Argitaratze data	2017/10/05
------------------	------------

Titularra	Ana Belen Jimenezen hilketa salatu dute Lantaronen eta Gasteizen		
Egilea	Ibai Maruri Bilbao		
Orria	7.orria		
Portadan erreferentzia	Ana Belen Jimenezen hilketa salatzeak, elkarretaratzeak gaur	<b>Bai</b>	Ez
<b>ARGAZKIA</b>			
Biktimaren argazkia		<b>Bai</b>	<b>Ez</b>
Erasotzailearen argazkia		<b>Bai</b>	<b>Ez</b>
Argazki informatiboa		<b>Bai</b>	Ez
Argazki oina	Dozenaka lagun elkartu ziren atzo eguerdian Gasteizko Plaza Berrian, udalak deitutako elkarretaratze isilean. Juanan Ruiz / Argazki Press		
<b>TRATAERA</b>			
<b>TRATAERA</b>	<b>EZAUGARRIAK</b>		
Indarkeria matxista edo genero indarkeria hitza hasieran	Sarrerako lehen hitzak: "indarkeria matxistaren azken biktima omentzeko elkarretaratzeak egin ditu gaur Emakumeen Mundu Martxak".	<b>Bai</b>	Ez
Egiturazko indarkeria gisa azaldu	Hasierako parrafoa: "[...] aurten genero indarkeriak hildako zortzigarren euskal herritarra da.[...]"	<b>Bai</b>	Ez
Gertakarien deskribapen egokia	Zehatz eta trataera egokiz	<b>Bai</b>	Ez
Emakumezkoaren/erasotzailearen profil tipifikatua		<b>Bai</b>	<b>Ez</b>

Emakumezkoaren datu pertsonalak errespetatu	Albisteari ez dio ezer gehitzen Ana Belen Jimenez irakaslea zela esatea	Bai	Ez
Erasotzailearen datu pertsonalak errespetatu		Bai	Ez
Emakumezkoa errudun egin dezakeen adierazpenak/iritziak		Bai	Ez
Aurretiazko testuingurua azaldu (salaketa, aurrekariak)	Banatzeko prozesuan zeudela dio albisteak, nahiz eta "aurretik ez zegoen indarkeria matxistagatik ipinitako salaketarik"	Bai	Ez
Sentsazionalismoa		Bai	Ez
Estereotipo/ rolak		Bai	Ez
Hizkuntza sexista / desegokia		Bai	Ez
Jarraipen egokia / mobilizazioen berri eman	Bai, Emakumeen Mundu Martxak nahiz instituzioek antolatutako elkarretaratzeen berri ematen du	Bai	Ez
Sakoneko gehigarria	Norma Vazquez Psikologoari elkarrizketa: "Erasotzaileei andreak baino gehiago inporta die estatusa galtzeak".	Bai	Ez

<b>FITXA TEKNIKOA</b>	
Argitaratze data	2017/10/06
Titularra	Senarrak aitortu du Lantarongo etxean hil zuela Jimenez
Egilea	Ibai Maruri Bilbao



Orria	15.orria		
Portadan erreferentzia		Bai	Ez
<b>ARGAZKIA</b>			
Biktimaren argazkia		Bai	Ez
Erasotzailearen argazkia		Bai	Ez
Argazki informatiboa		<b>Bai</b>	Ez
Argazki oina	Ehunka lagun elkartu ziren atzo Lantarongo udaletxearen aurreko plazan. Juanan Ruiz / Argazki Press		
<b>TRATAERA</b>			
<b>EZAUGARRIAK</b>			
Indarkeria matxista edo genero indarkeria hitza hasieran		Bai	Ez
Egiturazko indarkeria gisa azaldu	Auziaren hainbat arlo garatzen ditu albistek: erasotzailearen postura, instituzioen erabakia, akusazioaren aldea... Erasotzailearen lankideen elkarretaratzea ere adibide ona da.	<b>Bai</b>	Ez
Gertakarien deskribapen egokia		<b>Bai</b>	Ez
Emakumezkoaren/erasotzailearen profil tipifikatua	“Ohiko” genero indarkeria kasu da: senarrak emaztea hil du. Erasotzailearen jarrera ere ohikoa da: ekintza aitortzen du egin berritan	<b>Bai</b>	Ez
Emakumezkoare		<b>Bai</b>	Ez

n datu pertsonalak errespetatu			
Erasotzailearen datu pertsonalak errespetatu		<b>Bai</b>	<b>Ez</b>
Emakumezkoa errudun egin dezakeen adierazpenak/iritziak		<b>Bai</b>	<b>Ez</b>
Aurretiazko testuingurua azaldu (salaketa, aurrekariak)		<b>Bai</b>	<b>Ez</b>
Sentsazionalismoa		<b>Bai</b>	<b>Ez</b>
Estereotipo/ rolak		<b>Bai</b>	<b>Ez</b>
Hizkuntza sexista / desegokia		<b>Bai</b>	<b>Ez</b>
Jarraipen egokia / mobilizazioen berri eman	Erasotzaileen lankideen elkarretaratzearen berri emateaz gain, Clara Campoamorrek auzian parte hartzeko asmoaren berri emateak osotasuna ematen dio albisteari	<b>Bai</b>	<b>Ez</b>
Sakoneko gehigarria		<b>Bai</b>	<b>Ez</b>

<b>FITXA TEKNIKOA</b>			
Argitaratze data	2017/10/07		
Titularra	Ana Belen Jimenezen senarra kartzelara bidali dute, hura hil izana leporatuta		
Egilea			
Orria	7.orria		
Portadan		<b>Bai</b>	<b>Ez</b>

erreferentzia			
<b>ARGAZKIA</b>			
Biktimaren argazkia		Bai	Ez
Erasotzailearen argazkia		Bai	Ez
Argazki informatiboa		Bai	Ez
Argazki oina			
<b>TRATAERA</b>			
	<b>EZAUGARRIAK</b>		
Indarkeria matxista edo genero indarkeria hitza hasieran	Albiste osoan ez da genero indarkeria edo indarkeria matxista hitza aipatzen	Bai	Ez
Egiturazko indarkeria gisa azaldu	Senarraren atxiloteta kontatzen du albisteak. Labur baten sartu dute, espazio gutxiegi izan daiteke horrelako albiste batentzat	Bai	Ez
Gertakarien deskribapen egokia		Bai	Ez
Emakumezkoaren/erasotzailearen profil tipifikatua	Genero indarkeriaren ohiko kasu bat da, non erasotzailek hilketa onartzen duena	Bai	Ez
Emakumezkoaren datu pertsonalak errespetatu		Bai	Ez
Erasotzailearen datu pertsonalak errespetatu		Bai	Ez
Emakumezkoa errudun egin		Bai	Ez

dezakeen adierazpenak/iritziak			
Aurretiazko testuingurua azaldu (salaketa, aurrekariak)		Bai	<b>Ez</b>
Sentsazionalismoa		Bai	<b>Ez</b>
Estereotipo/ rolak		Bai	<b>Ez</b>
Hizkuntza sexista / desegokia		Bai	<b>Ez</b>
Jarraipen egokia / mobilizazioen berri eman		Bai	<b>Ez</b>
Sakoneko gehigarria		Bai	<b>Ez</b>

## 10. 2 Elkarrizketak

- Maite Asensio Lozano (Bilbo, 1983)

### **Hamabost urte pasa dira, bidea egin da, nolakoa izan da bilakaera?**

Ni ez nintzen egon Berria sortu zenean, dena den, ni feminismoan sartuta nengoen eta kazetari batzuk hitz eginda geneukan zein izango ziren irizpide batzuk. Berrian sartu nintzenerako bazegoen agertoki bat estilo liburuan zehaztuta agertzen dena, hau da, bazegoen ildo bat horikeriaz ez jokatzeko, eta horren baitan hasi ginen jorratzen indarkeria matxistak. Ondoren, iritsi zen une bat non konturatu ginen ez geneukala kapazitatek irakurketa politikoak txertatzeko. Testuak aseptiko xamarrek egiten genituela, testu hotzak, emoziorik gabeak, emozio gehiegikeriak horiekeria ukitu dezakeelako. Baina mugimendu feministaren aktibitateak lagundu du, eta azken urteetan erakunde publikoek ere irakurketak egiten dituzte eta alde horretatik txertatu daitezke irakurketa batzuk.

Guk gure jardunaldietan, hitzaldietan, gure irakurketetan teoria politika batzuk lantzen genituen, eta analisiak idazten hasi ginen. Esaterako, emakumeak banatzen direnean arriskuan daude eta gizonaren erreakzio patriarkala askotan emakumea hiltzea izaten da, hori azaltzeko analisiak idazten hasi ginen. Anisiek beste estatus bat ematen baitiete albisteei, gaiaren inguruko teorizazio feminista bat ematen da. Hurrengo egunetan ere saiatzeko gara gaia lantzen, elkarrizketen bidez edo analisisekin, azaltzeko zer gertatzen den eta gertaera soila ez dela jakinarazteko, hau da, giza eskubideen urraketa bat dela.

### **Gogoeta premia nondik sortu da?**

Gure lana letrak elkartzea da, garrantzitsua da letrak nola elkartzen ditugun, non kokatzen dugun informazio bakoitza. Esaterako, nire ustez, gizon batek 36 labankadaz emakume bat hil duela titularrera eramatea horikerian erortzea da. Baina, ez zait iruditzen datua eman behar ez denik. Izan ere, zifra horrekin arrazoitu daiteke ez dela beroaldi bat izan, gorroto bat adierazten du, eta epaiketarako datu garrantzitsuak dira. Horregatik diot datuak eman egin behar direla, baina ondo kontestualizatuta. Guk datuak ematen ditugu, baina ez titularretan edo azpítitularretan, testu barruan baizik. Guretzat titularra da: gizon batek emakume bat hil duela. Era berean, praktika on bat bezala ikusita dago “gizon bat atxilotu dute emakume bat hiltzeagatik” titulaztea ere.

Bizilagunen adierazpenik ez dugu ematen, ez bada lekukoak izan direla.

Emakumeen aurkako indarkeria, genero indarkeria, indarkeria matxista... Zergatik aldaketok?

Hiru kontzeptuak erabili izan ditugu, baina genero indarkeria kontzeptuaren inguruan debate bat egon da feminismoaren barruan. Guk genero indarkeria, Espainiako legediaren araberrako delitu bat adierazteko erabiltzen dugu. Adibidez, gizon bat harrapatu dute kalean emaztea jotzen eta atxilotu egin dute genero delitu bat egotzita.

Hortaz, delitutik kanpo dauden gainerako indarkeriei normalean indarkeria matxista deitzen diegu, edo sinonimo bezala, emakumeen aurkako indarkeria erabiltzen dugu. Bortxaketak ez dira genero indarkeriak.

### **Barne eztabaida: zeintzuk izan dira konfrontazioak? Nolako bidea izan da honaino iristea?**

Ez da hausnarketa oso formal bat egon gai honen inguruan, intuizioz eta ekimenez egin da gehiena. Kezka betidanik egon da, arnasten da kezka hori, bileretan ere azaltzen da. Badago giro bat gaia errespetuz lantzeko, konpromisoa ere badago, eta estilo liburuan ere ezarrita dago.

Gure gaitegian gai garrantzitsua da, modu askotara jorratu dugu, eta honen inguruko analisiak egiten hasi ginenean guk geuk proposatu genuelako.

### **Ba ahal da erredakzioan, orokorrena, genero ikuspegi nahikorik? Zeintzuk dira eguneroko erronkak?**

Editoreek adi egon behar dute gai horietara eta proposatu egin behar dituzte. Esaterako, Gizarteko lantaldean pertsona bat dago militantziaz feminista dena, horrek gaiarekiko sentsibilizazioa adierazten du. Erredakzioan genero ikuspegia zabaldua dago, ez nahi genukeen bezainbeste, baina emakumeak bisibilizatzearen gaia, eta albisteak genero ikuspegitik jorratzearena nahiko errotuta dago. Dena den sail guztietan ez dago ekimen bera, sail batzuk oso maskulinizatuta daude, baina denok dakigu nola jorratu behar den, eta zerbait gertatzen denean txipa jarrita dugu, nahiz eta ez dugun beti asmatzen. Beste sail batzuetan, maskulinizatuta egon diren arren, adibidez, kirolak. Orain emakume bat dago, baina denak gizonak ziren garaian jauzi ikaragarria egin zuten. Emakumeen futbola jorratzen hasi ziren, gaur egun emakumeen txirrindularitza birara joaten gara gizonenera joaten garen bezala... Uste dut oso eredugarria izan dela kirolen jauzia euskal prentsan.

Bi gako daude, sail batek zer behar ikusten duen, eta zer presio egiten zaion kanpotik.

Beste arlo batzuetan berriz izugarri kostatzen da generoaren gaia txertatzea, horren adibide argia da bakegintzaren gaia. ETaren inguruak oso maskulinoak izaten jarraitzen du, eta erredakzio barruan asko kostatzen da aldaketa proposatzea, hitzen bidez esatea, erresistentziak handiak baitira. Erresistentzia horien adibide dira, esaterako, gai horiek lantzeko emakumeak ez direla aurkitzen esatea, edota gaiak proposatu eta ezerezean geratzen direnean.

### **Etorkizunari begira, zein dira erronkak?**

Genero ikuspegia gehiago transbertsalizatu beharko litzateke. Edukiei dagokionez, emakumeak ikusarazi, hots, emakume iturri gehiago eta emakume elkarrizketatu gehiago azaltzea. Genero ikuspegia gai guztietan txertatuta egotea, eta batez ere, politika gaietan.

Antolakuntzari begira, argi dago erredakzio oso maskulinizatua daukagula, eta zuzendaritza taldea ere gizonen beteta dago, horri buelta bat eman behar zaio.

### **Martxoak 8: nola izan zen prozesua Berrian?**

Martxoaren 8an, esaterako, emakumeek kolektiboan antolatzen garenean zein indar handia dugun ikusi genuen. Emakumeen prozesu bat egin genuen, ez mistoa, eta lehenengo bileratik argi ikusi genuen mugimendu feministaren deialdiarekin bat egitea.

Bide naturala izan zen, ahizpatasunari esker inoiz etxe honetan arduratu gabeko sektoreekin harreman berriak izatera iritsi ginen, esaterako, banatzaileekin.

Gizonek ondo erantzun zuten, zuzendaritzaren babesa ere handia izan zen, eta etxearen irudiarekin ere oso bat zetorren horrelako ekimen bat. Apurtzailea izan zen. Honek ere balioko du Berriaren berdintasunarekiko konpromisoa agerian uzteko, eta indar kolektiboaren kontzientzia sortzeko.

Hauk horrela, orain daukagun erronka da nola iraunarazi jakitea martxoaren 8ko indar horri.

### **Nagore Laffage (2008):**

Nagoreren kasuak Berriara iritsi berritan harrapatu ninduen. Ez ditut gauza asko gogoratzen, baina akorduan dut hiltzailearen izenarekin titulatu nuen albiste bat idatzi nuela. Gaur egun ez genuke hori egingo.

Sentsazioa izan dut beti Nagore bi aldiz hil zutela. Are gehiago, sentsazioa daukat emakume baten hilotza mendian botata agertzen denean deshumanizaio totala dela. Gerra estrategia bat bezalakoa iruditu zitzaidan, eta denborarekin ikuspegi hori berretsi dut.

### **Ada Otuya eta Jenny Rebollo (2013):**

Gogoan dut igande batez entzun zela emakume bat oso larri eraman zutela, eta hurrengo goizean goiz Iñaki Petxarromanek deitu zidan prostituzioarekin lotuta zegoen beste emakume baten gorpua ere aurkitu zutela esanez.

Kasuak oso itxura txarra zuen. Hurbildu ginen gertakaria jazo zen lekura, baina egia esan ez du gehiegi balio lekuetara joateak. Lortzen den informazioak ez du

publikatzeko balio izaten, bai ordea bertan egosten denaren inguruko ideia bat egiteko.

Oso morbosoa zen dena, jefreak erredakzioetatik odola eskatzen ari ziren. Zirku bat izan zen.

Bazegoen informazioa, baina ez asko, uste dut guk bi orri egin genituela, ez zegoen askoz gehiagorako. Baina gogoan dut El Correok hamar orri atera zituela.

Inor ez zen gogoratu hilketa hauek politikoak direla, eta emakume horien biziak ez dutela ezer balio. Besteak beste, prostitutak, atzerritarrak, beltzak... zirelako. Horren inguruko analisisa ez zuen ia inork egin. Gaia despolitizatzeke giro argia zegoen.

Epaiketarako ordea, prestaketa berezi bat egin zuten auzitegitik, eta ez zen hain gaizki joan.

### **Melodie Masse (2017):**

Iparraldeko egoera betena kezagarria da. Bertako populazioa txikia dela kontuan hartuta, urtero hiltzen dute baten bat, eta urte batzuetan bat baino gehiago. Proporzionalki kopuru handia da.

Gainera, iparraldeko autoritateen aldetik oraindik ere entzun behar da drama familiarra izan dela...

Ustaritzeko emakume hau etxegabe bat zen, eta sekulakoak entzun ziren horren inguruan. Pobreziaren aurkako estigmatizazio itzela izan zen, baita hegoaldeko prentsan ere.

Asko haserretu ninduen mugimendu feministaren konplexutasunak, pobreak eta etxegabeak ez estigmatizatzeke ez baitziren ausartzen hilketa matxista bat izan zela esatera.

Ustaritzeko emakumea zortzi hilabeteko haurdun zegoen, eta gure artean eztabaida izan genuen horren trataera nola egin adosteko. Feminismotik pertsona bat ez da pertsona jaiotzen den arte, baina kontuan izan behar genuen emakume horren bizi proiektua zortzi hilabetekoa zela. Hortaz, beste bizi bat zegoen hor tartean, nahiz eta, jaio gabea izan. Gure artean eztabaidak izan genituen, eta azkenean haurdunaldiarena itularrera eramatea erabaki genuen.

### **Ana Belen Jimenez (2017):**

Kasu hau ere arraroa izan zen, eta ez dut asko gogoratzen.

Gure irizpideen arabeak, hildakoak dira: Euskal Herritarrak, Euskal Herrian jaiotak direnak, edota Euskal Herrian bizi proiektua dutenak. Kasu honetan bera arabarra zen, hortaz, irizpideetan sartzen zen, baina kanpoan hil zuten. Horregatik, irizpide aldetik eromena izan zen.

laz Euskal Herritarren hilketa asko Euskal Herrikan kanpo gertatu ziren.

- Martxelo Otamendi Egiguren (Tolosa, 1957)

**15 urte pasa dira Berria sortu zenutenetik. Nolakoa izan da bilakaera, batetik indarkeria matxista kasuetan, eta bestetik, orokorrean?**

Bilakaera izenak berak ere badauka. Izan ere, orain indarkeria matxista da baina duela urte batzuk genero indarkeria zen. Eta hori baino lehenago, emakumeen aurkako indarkeria. Gauzak aldatzen joan dira. Gurean prozesua, gizartean gertatu den bezala izan da, kontzientzia hartzen joan gara pixkanaka. Ez ditugu gaiok berdin tratatzen orain edo duela hamabost urte. Gai hauekin, beste hainbatekin bezala, gertatzen dena da heltzen eta ikasten zoazela. Aurtengo martxoak 8 adibidea ona da. Izatez, ez da ezer gertatu iazko martxoaren 8tik aurtengo martxoaren 8a justifikatuko duenik halako saltoa emateko. Ikaragarria izan zen, mobilizazioak, greba... baina berez ez da ezer gertatu urtebetean. Gertatu da emakumezko batzuk hil dituztela, baina hori ez da aldatu, zoritxarrez. Kopurutan antzera ibiliko da. Bapatean eztanda bat gertatu zen. Zer eraginda? Bada, gizartean kondizionante batzuk ematen dira, hori ahalbidetzen dutenak.

Gure kasuan gauza bera gertatzen da. Etxe barruan kontzientzia hartzen joan gara gaiaren larritasunaz. Ez daukagu kontzientzia bera orain eta duela hamabost urte, eta are gutxiago oraindik 1990ean Euskaldunon Egunkaria jaio zenean. Etxe honetan egon diren emakume batzuei esker, emakume batzuek eman dizkiguten argibide batzuei esker, ardua postutan egon garen gizonezko batzuk gauza batzuek errazago ikusi ditugu. Argiago bai behintzat. Denok egin dugu ibilbide bat etxe honetan indarkeria matxistan, eta emakumeari dagozkion beste gai batzuetan ere bai. Denok egin dugu ibilbide bat pixkanaka.

Guk izan ditugun lankide batzuek, Idurre Eskisabel eta horiek, gurekin egondako eta orain pentsamendu feministaren topean daudenak, duela hamabost urte ez zeukaten jakintza hori eta argitasun hori; ez zeukaten gauzak horren argi. Hori da prozesu bat denok egin duguna. Etxe barruan beti tiratu dute prozesu horretatik emakumeek eta beraiek arduratu dira eguneroko elkarrizketetan edo bileretan gauza batzuen gainean sentsibilitatea hartzen. Guk agian orduan hartuta ez genuena eta beraiek lehenagotik landua zutena. Baina ez beti, duela hamabost urte askok ez baitzeukaten gaur egun duten argitasuna. Gauzak teorizatuta dituzte, duela hamabost urte ez. Aintzindariak emakumeak izan dira. Genero sentsibilitate bat izaten erakutsi digute. Nik beti aipatu izan dut pribilegiozko irakasleak izan ditudala genero ikaskuntzan: Pilar Mendibil *Pilon*, Idurre Eskisabel, Lorea Agirre, Irene Arrarats, Maite Asensio... Haiekin ikasi dugu. Tira, haiek ikasi zuten lehenengo eta gero guri erakutsi ziguten. Gehien bat etxeko mutiloi sentsibilitatea izaten gai hauetan. Besteak beste, oraindik etxe honetan aginte postuetan mutilak daudelako. Zuzendaria eta zuzendari ordea mutilak dira, esaterako.

Gogoan dut nola une bat iritsi zen non emakume bat indarkeria matxistagatik hiltzen zuten aldiro azalean joan behar zuela erabaki genuen. Ez zen izan egun bat, ikasketa prozesu baten ondorioz gertatu zen. Indarkeria matxistarekin bezala, lan istripuekin ere gauza bera gertatu zitzaigun. Horiek ere azalean joan behar zutela erabaki genuen. Gero, gauza horiek betetzea, egunak zer dakarren kontuan izanda, ez da beti erraza. Ahal duzunean betetzen duzu.



Baina ezarrita dagoen joera bat da, eta aleak begiratzuz gero, ziurrenik ez dugu ehuneko ehunean bete baina gure artean behintzat argi dagoen gauza bat da. Horrek inflexio puntu bat suposatu zuen: indarkeria matxista kasuak arazo meteorologiko izatetik, arazo bat izatera pasa ziren, ondoren arazo larri bat izatera eta azkenik atentzio berezia merezi duen arazo izatera. Hori lehen orriaren kasuan diot. Azken finean, gure erakusleihoa da eta hor ikusten dira gure gai nagusiak. Ondoren, albisteen lanketan, azken urteetan alde nabaritu da. Esan bezala, etxe honetan oso jende konprometitua dagoelako, eta bestetik, gizarteak ere hala eskatzen duelako. Azken urteetan auziak merezi duen larritasunetik lantzen ditugu. Ikasketa bat da. Estilo liburuan ere gaur egun lehen ez zeuden kontzeptuak daude. Denok ikasi dugu, beti ere, emakumeak gure aurretik joan direla nabarmenduz eta gulgandik tiratu dute.

### **Gogoeta premia nondik sortzen da?**

Konbinaketa bat izan da: etxe barruan emakumeek eramandako gogoeta bat, haiek lehenago hasi zuten prozesua. Eta gizarteak geroz eta arreta handiagoa eskaintzen die gai hauei, gero eta modu larriagoan adierazten baita gertatzen ari dena.

### **Etxeko emakumez gain, mugimendu feministak eragina izan du?**

Bai, erabat. Gauza da etxe barruko hainbat emakume mugimendu feministaren parte izan direla. Elkarlan horren ondorioz gaude egungo egoera. Neskek ere ikasi dute, gehien bat lehen estilo liburuan ez zeuden hainbat gauza orain bai agertzen direlako. Horrek zer esan nahi du, lehen matxista batzuk ginela estilo liburuan ez genituelako zehaztuta hainbat kontzeptu, nahiz eta neskek ere estilo liburuaren parte izan? Ez. Ziur aski, gainera, hasierako estilo liburu hori mutilek egindakoa izango da, bakarrik. Baina orduan ere gure neskek egingo balute, beraiek ere onartzen dute ez zutela gaur egun duten ezagutza, ez dutela berdin jokatzeko. Orduan, nik uste mugimendu feministaren kasuan, ez mugimendu feministak Berria mantxeta izan duela, beti izan baita harreman bat, elkar behar bat, baina ez horregatik bakarrik. Gu urte asko goaz martxoaren 8ko albistearekin zabaltzen egunkaria hurrengo egunean. Dударik gabe sentsibilitate horri garrantzia eman nahi izan diogulako izan da. Gauza horiek, ordea, ez da sekula gertatzen egun batetik bestera, pixkanaka gertatzen dira. Egunduetan ere etxe barruko genero gai bat aztertzen ari gara, ikusten dugulako badatorrela eta orain heldu behar diogula honi. Zergatik ez genion eutsi duela hamar urte? Ez genuelako egun dugun kezka bera.

### **Zenbatekoa da genero ikuspegia erredakzioan?**

Produktuari dagokionez, nik uste, asko hobetu dugula urte gutxitan. Esaterako, kirolean, emakumezkoen kirola guren duela bost urte arte desagertuta egon da. Gaur egun asko aldatu da hori, eta garrantzia irabazten ari dira. Orokorrean, emakumeak albiste izan diren gaiak emateko konpromisoa badugu, izan feminismoagatik edo sariren bat irabazi duelako norbaitek. Ondoren, albiste neutroetan, emakumeen presentzia hareagotzeko estilo liburuan badira aholkuak eta hartuta ditugu hainbat erabaki. Batzuetan hobeto kuadeatzen dugu eta bestetan okerrago. Beste kontua da, zientifiko bat behar dugunean gai bati buruz hitz egingo diguna, beti gizona izateko jotzen dugula. Hor kontua emakumezko bat bilatzea da.

Besteak beste, Berriak beka bat eman zuen genero ikuspegitik profesionalen webgune bat egiteko. Beti gizonezkoengana jotzen dugu eta lan honi esker hainbat emakumezko profesional batera izateko toki bilakatu zen. Baimena ematen dute bertan izan nahi dutenek eta horrela emakumeen parte hartzea bultzatu genuen. Hau da, bi arlo bereizten ditugu: informatiboki protagonistak direnean horren berri ematen, eta bestetik, iturri gisa eta aditu gisa erabilia. Hor nik uste nota hobeto dugula. Nota txarra erredakzioko aginte postutan lortzen dugu. Administrazio kontseilua parekide xamarra da, baina erredakzioan oraindik, ez da horrela.

Gertatzen zaiguna da sail batzuk oso maskulinizatuta ditugula, horrek ez du nahi esan beti horrela izan denik, baina gaur egun hala da. Lehen neskek zeuden sailetan egun mutilak daude. Zirkunstantziengatik. Gero beti gertatzen da adin batetik aurrera asko ama izaten dira, eta hori gertatzen denean baimen bat eskatzen dute gurasotasun baimenaren ostean, egun erdiz itzultzeko lanera. Orduan egun erdira itzultzen diren horiek sail sendoetan konplikatuta da, eta beste sail batean sartzea eskatzen dute. Beste kasu batzuetan, zuzenean webguneko ardura, Gipuzkoako Hitzan edo Mantangorri gehigarrian aritzea eskatzen dute; zenbait kasutan goizeko 7:00etatik 13:00etara arte ondoren egun osoa libre izateko. Nolabait, bateragarria egiteko hemengo lana eta bere ardura familiarra. Gainera, garai batean ez ginen ohartu neskek hutsik utzitako lanpostuetan neskek sartu behar genituela. Hori gure akatsa da. Orain gure buruan fokua jartzen ari gara esanez, "aizue, sail batzuk oso maskulinizatuta daude". Gainera, horietako sail batzuk etxeko sail garrantzitsuenak dira.

Badira, bestalde, aparteko zailtasun batzuk: gaur egun editore bat gaixorik dago, minbizia dauka. Bere ordean munduan zegoen arduradun bat jarri genuen, emakumea baita ere. Munduko arduraduna editore jarri genuen, lehenagotik emakume bat zegoelako. Hiru emakumek ezezkoa eman ziguten. Jendea ezin dugu behartu. Nahiz eta ohartu garen azken boladan kazetari bati esaten diozunean inoiz egon gabeko sail batera aldatzeko, mutilek inizatiba handiagoa agertzen dute neskek baino. Esaterako, munduko mutil bati esan genion, "joan zaitez ekonomiara arduradun". Idearik ez zekiela esan eta azkenean onartu zuen. Gaur egun ez duzu hortik mugitzen ur beroarekin ere ez. Esan nahi dudana da, salto hori, gaur egun ere, mutilek errazago ematen dutela. Neskek konbenitzeko orduan azken boladan argudio gabe ari gara geratzen eta "neska zara" esatea baino ez zait ateratzen. EiTbko kamarak datoz, emakume bat agertzea nahi dugu eta inor ez dago prest. Jendeak ETArekin gehigarriaz hitz egiten du baina horren atzean badira beste faktore batzuk ere. Esan nahi dudana da, hemen emakume ahuldundu asko daudea, martxoak 8ko egunkaria ikusi besterik ez dago, baina gero oraindik egunerokotasunean ez dute aurrera pauso hori eman.

Mutiletan oraindik tonua da "ba motel, ingoek!", eta nesketan ez. Lanketa bat behar dugu horri buruz eta datozen asteetan espero dugu horretan hastea. Ardurak hartzeko orduan falta da inizatiba hori. Osakidetzak bakuna bat atera zain, hezkuntzak parekidetasunean hezitako profesionalak hezi zain edo beste norbaitek egoera aldatuko duela itxaroten egon behar bagara, jai daukagu. Guk geuk heldu behar diogu arazoari. 1.500 BerriaLagun lortu ditugula ospatzeko

argazki bat atera dugu. Lehen lerroko denak mutilak ziren hasieran, eta esan behar izan zaie emakumeen aurrean jartzeko. Gehigarriaz hitz egiten ari garen bitartean, gero horrelako gauzak gertatzen dira. Horrela dela onartu dezakegu, edo landu eta gauzak aldatzen saiatu. Falta zaiguna da kanpora ematen dugun irudi hori egunerokotasunean plasmatea da. Bestela fikzio antzeko baten biziko gara. Badugu berdintasun kontseilu bat eta ea guztion artean egoerari buelta ematea lortzen dugun.

### **Eguneroko konfrontazioak, orduan, zeintzuk dira?**

Lehen aipatutako adibideez gain, mutilek genero ikuspegia lantzen jarraitu behar dugu. Iritsi gara iritsi garen tokira arte nesketatik ikasita, baina horiek gehiago izan dira kanpora begira, zer irudi eman nahi genuen pentsatuz, eta ez hainbeste barrura begira. Orain etxe barruan lantzeko ordua da. Kanpora erakusten dugun sentsibilitatea barruan ezartzeko ordua. Prozesu guzti hauek ez dira izan kontzienteki eginiko hausnarketak, ez genuen horretarako bilera bat egin. Gizartean ere, eta hemengo emakumeek ere argiago ikusi dute indarkeria matxista gaiak garrantzitsuak direla eta lehen lerroan jarri behar genituela, hilketak azalean joan behar dutela, esaterako. Prozesu hori natural eman da, ez da arazorik izan, nahiz eta ondoren jarraitzen genuen kanpoko irudiarekin bat ez zetorren barruko funtzionamendu batekin. Orain, kanpoko bideratu dugunean, barrukoa tokatzen zaigu.

Erredakzioan, gaur egun, mutil gehiago daude emakumezkoak baino. Berdintzeko duela urte batzuk okurritu ere ez zitzaizkigun gauzak ari gara planteatzen. Esaterako, erredakzioko lanpostu batzuk finkoak dira. Batzuk, ordea, estedentzia batekin daude edo gaur egun bere postua libre dago. Ordezkapenen kasuetan, hauek ez dira fijo bilakatzen. Batzuetan, ordea, lankideek euren lanpostuak uzten dituzte, Idurrek egin zuen bezala adibidez. Bere lekua hartuko duena aukeratzeko, balorazio prozesu bat egiten da. Barne lehiaketa bat hasten da hortik aurrera, eta honako irizpide hauek hartzen dira kontuan: kalitatea eta antzinasuna. Kalitatea bi lehiakideen artean berdintsua denean, antzinasunak markatzen du diferentzia. Orain planteatzen ari garela da, itzultzailea litzatekeena bide batez, beste elementu bat sartzea: emakumearen faktorea kontuan izatea eta ez antzinasuna. Orain dela bost urte ezinezkoa izango litzake hau planteatzea, neskek ere ez lukete pentsatuko. Garrantzitsua iruditzen zait esatea prozesu honetan guztiok ikasi dugula, bai neskek baita mutilok ere.

- Irene Arrarats Lizeaga, Hernani.

### **Hamabost urte hauetako bilakaera nolakoa izan da indarkeria matxistakiko?**

Bilakaera handia izan da. Trataeran eta baita terminologian ere. Trataeran geroz eta politikoagotzat jo direlako horrelako gaiak. Ikerketa berezirik egin gabe ari naiz aipatzen hausnarketok, baina hala izan dela esango nuke. Nik uste dut argi baino argiago dagoela gaur egun horrelako gaiek oihartzun handiago dutela, oro har, gizartean, baina baita Berrian ere. Toki handiagoo ematen zaie eta batez ere toki garrantzizkoagoa. Alde horretatik bilakaera nabarmena izan dala esango nuke. Zergatik? Ez direlako, lehen aipatu bezala,

gertakari, edo gazteleraz sucesos deritzenak bezala tratatzen baizik eta, gai estrukturalak eta politikoak bezala. Hori dela eta, Berria horren arabera tratamendu bat ematen zaie. Gainera, 2003. urtean hasi zen Berria argitaratzen, 2006.an atera zen estilo liburu eta gure estilo liburuan deontologiaren atalean bada azpi atal bat sexismoaren ingurukoa. Hor lehenengo aldiz euskal prentsan irizpide batzuk publiko egin ziren gauza horiek nola tratatu eta nola ez. Oso xumeak, oso laburrak, baina markatu zuten halako jokaleku bat. Terminologiaren kasuan, oso nabarmena da eboluzioa.

Gogoan dut, Espainian genero indarkeriaren aurkako legea onartu zenean, gogoan dut nola Euskal Herria polemika egon zen genero hitzaren inguruan, ea egokia zen ala ez zen eztabaida. Gogoan dut nola jakintsu askok genero gramatikala bakarrik zela, bide batez aipatu genero beti erabili izan dela jangaiei buruz hitz egiterakoan. Ematen zuen gramatikala bakarrik existitzen zela euskaraz. Ordu arte, feministak nekatuta zeuden esateaz gauza bat sexua zela eta bestea genero. Hor resistenzia pixka bat egon zen. Idazleren baten gurean ere idatzi zuen esanez genero hori ez zela. Genero indarkeria kontzeptua Espainiatik iritsi zitzaigula esan daiteke, legea dela eta, eta erabiltzen hasi ginen behin resistenzia horiek gainduta. Ondoren, etxe honek egin duen eboluzioari esker, onera eginiko eboluzioa, beste pauso bat eman du eta genero indarkeria, esaterako, bakarrik Espainiako legedia aipatzerako orduan erabiltzen da. Bestela, arazo estruktural soziala izendatzeko, indarkeria matxista erabiltzen dugu. Hori erabiltzen dugu gehien bat zintetan. Hor bai eon da ibilbide terminologiko bat. Tratamenduan ere bai: zenbat toki eta ze toki, batez ere.

### **Hasiera batean emakumeen aurkako indarkeria bezala izendatzen ziren gai hauek, ondoren genero indarkeria, egun, indarkeria matxista. Zergatik eman dira aldaketok?**

Genero indarkeria Espainiako legeak ekarri zigun eta orain ere testuinguru horretan hori erabiltzen dugu. Emakumeen aurkako indarkeria gaur egun ere noizbait erabiltzen dela esango nuke, batez ere webgunean, ez baitago papera bezain kontrolatuta. Nik ez daukat ezer termino horren aurka, baina umeak hiltzen dituztenean amari mina emateko, emakumeen aurkako indarkeria da bai baina zehatzagoa da esatea indarkeria matxista. Gehien bat emakumeak hiltzen ditu baina emakumeari kalte egiteagatik haurtxo bat hil behar badu, hil egingo du. Parean harrapatzen duen guztia. Nere ustez indarkeria matxista askoz egokiagoa da zuzenagoa delako, indarkeria zerk sortzen duen zehazten baitu. Hemen egin dira gogoeta interesgarriak eta horiek izan dira bilakaera. Uste dut kazetaritzaren lanetako bat badela gizarteak egiten dituen gogoeta kolektiboak eta mundu ikuskeren bidelagun izatea. Ez nuke esango aurretik joan behar duenik, baina bai lagundu behar duela. Parean behintzat bai. Bestela ez duzu kazetaritza egingo. Alde horretatik Berria ondo txertatu dagoela uste dut euskaldunon komunitateak, bertan dauden gogoeta eta kezkek badaudela gure orrietan.

### **Gogoeta premia nondik dator? 2006an gogoeta nondik sortu zen?**

Horrelako gauzak lantegi kolektiboak dira. Ez badu sumatzen gizartean zer egosten den, ez da fin ibiliko. Alde batetik hori, bestetik, jada Egunkariaren

garaitik, beti egonda jende gai honekin sentiberatasun handia duena gai hauekiko eta beraien lehentasun politikotzat ezarria dutena. Beraien lanari esker gauza asko planteatu dira, eta agian ordu arte pentsatu gabeko gauzez hausnartzeko bidea eman dute. Egin da eta egiten ari dena, eta bide batez esanda, hau ez da sekula amaituko; pentsatzeari ez baitiogu inoiz uzten, hiltzen garen arte. Gogoeta hori Berriako lankide eta kideen artean nahiko modu espontaneoan sortzen da eta gero, zorionez, badaukagu modua plazaratzeko eta eztabaidatzeko. Noski, horrek badu bere isla produktuan. Gauza paralelo bat da: gizartean bere bidea egiten du, noski, baiian Berria ez da extraterreste bat eta Berria ere hortik doa. Baina, egia da, hemen barruan ere jendea behar dela honetaz arduratuko dena eta guztion akui izango direnak.

### **Eztabaida, konfrontazioak eman dira?**

Estilo liburuan, esaterako, ez zen inongo konfrontaziorik eman onartzerako orduan. Ardura genuenok egin genuen lehen idatzia eta han gauza batzuk planteatu genituen, gauza asko berriak ziren. Zuzendaritzari erakutsi, kontrastatu eta ez zen arazorik izan. Egia esateko, berehala jarri zen martxan. Giza eskubideen mailako gauza oinarritzakoak baitira. Angela Davidsek dion bezala, "feminismoa zer da? emakumeok gizakiak garela dioen teoria erradikala". Zaila da horri kontra egitea, bai behintzat giro zintzo batean, hori gezurtatzea zaila da. Gero gauza txikiagoetan eztabaidak egon daitezke, gure praktikan esaterako, non egiten dugun irrist eta non doakigun ondo bai eztabaidatzen dugu. Gauzak ahalik eta laburren eta zehatzen jartzen saiatzen gara. Gero egunerokotasunean nola aplikatu guk ezarritakoa, zein trataerarekin eta horrela, normala eta osasuntsua da. Baina gutxienez jokalekua markatuta dago, eta jokaleku horretan batek agian penalti egingo du eta besteak gola sartuko du, baina jokalekua ezartzeko orduan ez dela arazorik izan. Gainera, uste dut, Berrian bere balio editorialaren baitan hartzen dituela gaiok gauza serioak eta garrantzitsuak direla. Gure irakurleek asko estimatzen dute seriotasun hori.

### **Mugimendu feministak eragina izan du?**

Dударик gabe! Izugarritzako eragina izan du. Ez Berrian bakarrik gainera, gizartean eragiten du, gizartean oro har. Azkenean, horrelako ikuspegi aldaketak onuragarriak dira. Orain lehen ikusten ez genituen gauzak ikusten ditugu. Orain ohartzen gara gizartean gertatzen diren hainbat gauzek ze garrantzia duten, zein erro dituzte, zein ondorio... Horren azterketa guztia, gogoeta hori, mugimendu feministak egin du. Ez unibertsitateek ez instituzioek. Badira unibertsitatean dauden feministak, noski, eta egun ikerketak asko beraiek zuzentzen dituzte. Baina ernamuina mugimendu feministari sor zaio. Mugimendu feminismoa unibertsitatean, komunikabideetan eta leku askotan sartu da. Eragina du eta hari sor zaio.

### **Beste eragileren bat?**

Mugimendu feminista eta barruan lan egin duen jende asko. Gaur egun barruan diharduten askok eta kanpotik bultzaka laguntzen digutenei. Bultzatzen egin ez dutenak, gainera, ez dira traba izan. Hori oso inportantea da. Jende guztiak ezin ditu izan munduko injustizia guztiak lehentasun gisa, baina zuk beste bat baduzu, behintzat ez zara traba izan behar. Sinpatiaz ikusi behar duzu

bestearen borroka. Bakoitzak bere lehentasunetik, bakoitzak beretik, mundua leku hobea bat izateko nahia elkarbanatzen dute eta bide horretan, gutxienez, ez zara bestearen traba izan behar. Hemen bai egon da jendea "traba" izan dena gai honekin, pelma xamarra, baina orokorrean ez. Gainera, aditzen jakin dute eta sekula hausnartu gabeko gogoetara bultzatu dituzte.

### **Badago genero ikuspegia erredakzioan?**

Esate baterako, indarkeria matxista kasuak gizartea sailean lantzen dira. Gizartea sailekoak espezialistak dira jada horretan eta oso ondo egiten dute. Denok deskuidatu gaitezkeenez, badira beti galbaheak pasa beharrak, eta egunaren amaieran ziur baten laguntzaz ez bada bestearekin trataera egokia eman zaiola albisteari. Nik uste gehienetan hala izaten dela. Baina, horrek ez du esan nahi egunkari osoan, sail guztietan, albiste guztiak halako fineziaz eginak eginda daudenik gai honi dagokionez. Ez bakarrik indarkeria, sexismoa edo modu zabalagoan hartuta. Ez, gauza batzuetan oraindik ere irrist egiten dugu. Batzuetan argitaratu baino lehen ohartzen gara eta beste batzuetan argitaratu eta gero. Hor dago egunkari on baten gakoak: gaizki egindakotik ikastea. Ez baduzu hala egiten lehengo akats beretan eroriko zara. Ez dut uste Berriak perfektua izateko bokazioa izan behar duenik, baina bai gizartearekin batera aurrera segitzekoa. Atzo gaizki egindakoa bihar ez dugu egingo. Hori ez da gutxi. Hori da gizakiok egin dezakegun gehiena eta bakarra. Horrek esan nahi du beti erne egon behar duzula, kritikak aditzen jakin behar duzula eta hori oso zaila da, denoi kostatzen baitzaigu. Baina hori da profesionalon handitasuna ere.

### **Etorkizunari begira. Zein dira erronkak?**

Sexismoari oro har dagokiola gai hori transbersala izan dadila. Sail guztietan eta gai guztietan. Guztiz mamitua dugu Berriako langile guztiok ezin dugula Andoain (Espainia) idatzi, ez baita hori gure mundu ikuskera eta ez diogulako nahi irakurleari hori helarazi nahi. Ba ideia hori oinarrian hartuta, beste hainbeste. Hau da, sexismoarena ez da kaxoi itxi bat. Kiroletan bezala, beste danetan zaindu behar den gaia da. Emakumezkoen kirola, esaterako, lehen ez zen sekula ateratzen. Orain askoz gehiago agertzen da. Gainera, agertzen hasi zenean, Athleticken kasuan, esatera, bere horretan aipatzen zenean gizonen Athletic zen, eta bestela nesken Athletic. Ondoren ikasi genuen nesken Athletic bezala izendatzea, pixkabat, gurasokeriaz jardutea zela. Emakumezkoen Athletic jarri zitzaion orduan izena. Azkenean ohartu ginen ezin genuela bilakatu gizonen kirola antonomasiko, eta emakumeena, aldiz, kirola ez den zerbait; guztiz bigarren mailako bilakatuz. Kirola, abizenik gabe gizona bada, emakumezkoena zer da, ezta? Hor zegoen mamia. Hori jada ikasi dugu emakumezkoena nahiz gizona izan, guretzat Athletic eta Realak direla. Aurrerapauso handia izan da.

Gauza bera ari gara saiatzen egiten beste sailetan. Gure irizpide sendoa eta transbersal gisa jarri behar dugu sexismoa. Kamisetak saldu behar ditugula? Ba emakumezkoena edo gizona izan jarri beharrean, tailak estuak eta zabalak direla jarri dugu. Izan ere, emakumezko batzuei kamiseta zabalak eramatea gustatzen zaie eta gizona batzuei estuak. Ez da bakarrik kazetaritzako testuetan martxan jarri beharreko gauza bat, askoz ere integralagoa da.

Indarkeria matxistaren trataera prentsa idatzian: Berria egunkariaren bilakaera

Indarkeria matxistari dagokionez, ez nahiz ausartzen esatera zein diren etorkizuneko erronkak.

-